AIARALDEA

Jaietan

2018KO UDAKO JAIAK

ABUZTUA · IRAILA

ALDIZKARI BEREZIA I Tirada: 10.000 ale I *DOAN*

ESKATU URA PITXERREAN

Arabak kalitate bikaineko ura dauka eta ingurumenaren alde egiten du.

Zuk ere lagun dezakezu ingurumenaren iraunkortasunaren alde egiten, ura behar duzunean pitxerrean ekartzeko eskatuz jatetxeetan.
Tantaz tanta, egunero keinu txiki bat eginez, gutxituko duzu plastikozko hondakinak.

TANTAKA

Arabako Foru Aldundiaren kanpaina bat da, ostalaritzarekiko eta arabar herritarrekiko elkarlanean.

Eskatu ura pitxerrean!

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Araba da erronka | *El reto es Álava*

Uda eta jaiak ere, denon eskutik denon eskura!

Jaiez lepo datoz abuztua eta iraila Aiaraldean. Dozenaka herri eta auzotan ospatuko dituzte festak bi hilabete horietan. Ospakizun horien nondik norakoak jaso eta aldizkari honetan bildu ditu Aiaraldea hedabideak, eskualdeko bizilagunen eskura egon daitezen. Horrez gain, gogoratu jaien jarraipen bereziez gozatzeko parada egongo dela Aiaraldea.eus atarian. Uda ona izan!

SANTO DOMINGO Abuztuaren 8-9 (7. orria)
SAN LORENTZO Abuztuaren 10ean (8. orria)
SOXOKO JAIAK Abuztuaren 30-31 (10. orria)
MENAGARAI BEOTEGIKO JAIAK Irailak 26-27 (11. orria)
OPELLORAKO JAIAK Irailak 29 (11. orria)
LUXOKO JAIAK Abuztuak 15 (11. orria)
KOBATA-SAN BITORES JAIA Irailak 1 (11. orria)
ETXAURRENGO JAIAK Irailak 1-9 (12. orria)
OKONDOKO SAN ROMAN JAIAK Abuztuak 4-9 (15. orria)
OKONDOKO SAN BARTOLOME JAIAK
Abuztuak 22-26 (13-19. orriak)
ORRUÑOKO JAIAK Abuztuak 9 (21. orria)
KALEBARRIAKO JAIAK Abuztuak 14-16 (20-22. orriak)
KOROATZE JAIAK Abuztuak 31 - Irailak 1 (22. orria)
ANTIGUAKO JAIAK Irailak 7-8 (23. orria)
ARRANKUDIAGAKO JAIAK Abuztuak 14-20 (25-28. orriak)
ATXETAKO JAIAK Irailak 15-16 (29-30. orriak)
AMURRIOKO SAN ROKE JAIAK Abuztuak 11-17
(31-46. orriak)
BARANBIOKO JAIAK Irailak 7-10 (46. orria)
LARRABEKO JAIAK Abuztuak 24 (47. orria)
ALORIAKO JAIAK Abuztuak 29-30 (48. orria)
LEKAMAÑAKO JAIAK Irailak 29-30 (48. orria)
LAUDIOKO SAN ROKE JAIAK Abuztuak 15-26 (51-81. orria)
LATIORROKO JAIAK Irailak 14-16 (82. orria)
OROZKOKO SANANTOLINAK
Abuztuak 31 - Irailak 4 (83-89. orria)
IBARRAKO JAIAK Abuztuak 14-16 (89. orria)
BERAZAKO SANMIGELAK Irailak 28-29 (89. orria)
GOIKIRIKO JAIAK Irailak 8 eta 16 (90. orria)
ARTZINIEGAKO JAIAK Abuztuak 31 - Irailak 8 (91-94. orriak)

JAIAK AIARALDEAN
2018
UDAKO ALDIZKARI BEREZIA

Argitaratzailea:
Aiaraldea Koop. Elkartea
Tirada:
10.000 ale.
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Erredakzioa:
Aiaraldea hedabideko erredakzioa
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 618243937
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbideak:
Nerbioi Kalea 12, behea
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
94 656 85 54
688 848 152
OHARRA:
Aiaraldea hedabideak ez du bere gain hartzen elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali zure argazkia irailak 21 aurretik

@aiaraldea

688848152

BOZKATZEKO EPEA irailak 22-30

SARIA

Aiaraldea.eus-en boto gehien jasotzen dituen argazkiarentzat **Las casas de las cascadas** etxean 2 lagunentzat gau bateko egonaldia

AIARALDEA GAUR

AIARAKO HERRIETAKO JAIAK

ABUZTUA / IRAILA

GENTZA ALAMILLO UDAETA

AIARAKO ALKATEA

San Joan egunaren ostean egunak luzatu eta gauak laburtu ohi dira. Askok udari egozten diote ahalmen hori. Hala ere, gurean, Aiarako hainbat herritan, egunak zein gauak luzatzen dituztenak, tokian tokiko jaiak dira... eurak baitira denborari etekin eta aprobetxamendu handiena ateratzeko gaitasuna duten bakarrak... elkarrekin berriz ere topo egin dezagun, lagunartean disfrutatu, garai bateko kontuak gogoratu eta bat-bateko momentuak ahaztezin bihurtzen dituzten jaiak.

Xarma berezi hori festa herrikoiek eta festarako grinaz betetako herritarrek soilik dute... eta zorionekoak gu guztiok antolakuntza lanetan ahaleginak eta bi egiteko irrikan dauden gizon emakumeak ditugulako, jai herrikoei, gozamenez eta, nola ez! errespetu osoz etekina atera nahian lanean diharduten aiarar zintzo eta leialak. Aurten ere, festarako deia egin gura dizuet... antolatzaileekin eta bestelako eragileekin batera, gure -gureak diren jai-usadioei eusten eta gozatzen jarrai dezagun. Eta elkarbizitzaren, lagun hurkoarengatiko errespetuaren eta festarako grinaren aterki zabalaren pean, aurtengo jaiak eredugarri eta gogoangarri bihur ditzagun.

Gozatu eta gogoangarri bihur ditzagun aurten ere Aiarako jaiak!

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

ELKARRIZKETA

PACO MARTIN ETA PILI ARBAIZA IZAN ZIREN SAN LORENTZO JAIAK ASMATU ZITUZTENAK, 1990EAN. 20 LAGUNEN ARTEKO BAZKARIA 200DIK GORA PERTSONAREN FESTA BILAKATU DA. ERMITAKO JAI EGUNAREN IRAGANAZ ETA ORAINAZ MINTZATU DIRA.

"Lagunarteko bazkari batetik sortu genuen San Lorenzo ermitako jaia"

Nola sortu zen sanlorentzo jaia? "Asmatutako" festa da, ezta?

Baserria erosi genuen. Laudion lagun kuadrilla genuen, eta bazkari bat egitea otu zitzaigun. Horrela sortu zen, lagunarteko bazkari batetik. Propio egin genuen San Lorentzo egunean. Lehen bazkarian 20 pertsona inguru egon ginen. Egun horretatik aurrera ohartu ginen, aukera polita izan zitekeela herriari ekarpen bat egiteko. Horrela bilakatu zen herri bazkari. Jai Batzordearekin eta Batzar Administratiboarekin elkartu ginen, eta ondo iruditu zitzaien ideia.

Lehenbiziko bazkari herrikoian zenbat elkartu zineten?

70 lagun! Urteak aurrera egin ahala handitu egin zen parte hartzea. Azkenengo bazkarian 200 herritar elkartu ginen! 30 urte inguru daramatzagu bazkaria antolatzen, 90eko hamarkadatik.

Hiru hamarkadatan aldatu egingo zen ingurua ere...

Bai. Garai hartan nire baserriaren bueltan apenas genuen ur eta argirik. Bidoietan igotzen genuen ura jendearentzat, Land Roverrean. Bazkaria egin ostean lapiko eta abarrak garbitu eta txukundu behar ziren. Hozkailurik ezean, ardoa barrakoietan sartzen genuen, eta fruta izotzdun ur balde handietan. Elikagai eta edari guztiak arboletako adarrekin estaltzen genituen, eta itzaletan gordetzen genuen.

Eta antolakuntza aldetik, nola aldatu dira gauzak?

10 pertsonaren artean antolatzen genuen, nahiz eta momentuan bertan jende gehiago batu laguntzera. Asko etortzen ziren baserrira letxuga edo behar zena prestatzera. Guk lana bideratzen genuen. Entsaladak, esaterako, emakumeek prestatzen zuten, gizonezkoren bat edo besterekin. Kamioiak eta materiala igotzeaz Batzar Administratiboa arduratzen zen: mahaiak, aulkiak, oholtza...

Lurraren jabetzan ere aldaketak eman dira...

Hasiera batean gurea zen, orain udalarena. Herriak zuhaitzak jarri ditu, eta askoz politago geratu da. Edonoiz, edonorentzat irekia dago. Jabetza pribatua mantendu balitz, arazoak pilatuko lirateke: festa egunean soilik sartu ahalko litzateke jendea? Dena zabalik balego, ganaduarekin zer? Soluzioa bilatu behar zen, eta herria-

rena izatea erabaki genuen. Orain, denok disfrutatzen dugu: herrikoek eta kanpotik datozenek.

Zenbat urtez antolatu duzue jaia?

Hamabost bat urtez. Hein batean, pena ematen digu. Guretzat ez zen bazkari hutsa, lehenago elkartu behar ginen erosketak egiteko, marmitakorako hegaluze bila Bermeo edo Santoñara joateko... Lagun arteko egunpasak politak ziren, lan handia suposatu arren. Nahi edo ez, gauza asko dira: su prestaketak, kazola bilketa, materiala lortu eta itzultzea... Ingurua ez zegoen horren prestatuta, baina gustura egiten genuen. Egia esan, asko gozatu dugu jendea disfrutatzen ikusten. Orain egiteko modua bestelakoa da, plana industrialagoa da, ez da horren herrikoia.

> **“Orain egiteko modua bestelakoa da, plana industrialagoa da, ez da horren herrikoia”**

> **“Lehen herri kirolak ere egiten ziren. Antzar eta txakurrekin txapelketak ere antolatzen genituen”**

Itzal falta agerikoa da... Nola moldatzen zineten?

Eguzkipean. Gogoan dut artzain txakur txapelketa egin zenekoa, sekulako ekaitza bota zuen! Ezustekoan harrapatu gintuen, baina denbora gutxian konpondu genuen. Guztion artean gauzak mugitu eta frontoian bukatu genuen bazkari eta festa.

Ekintzak ere berritu dira?

Lehen herri kirolak ere egiten ziren. Antzar eta txakurrekin txapelketak ere antolatzen genituen. Iñaki Perurena ere hona etorritakoa da harri-jasotzaile gisa! Trontza ere egiten zen, eta herritarren artean norgehiagoka bizia egoten zen!

Egun, nola bizi duzue sanlorentzo eguna?

Parte hartzen, baina ez lehen bezainbeste. Lehen, gauez, beti zegoen animaliaren batekin festa: astoa, akerra, zekorra... Behin soka jarri genuen eta jendeak sokamuturra zegoela pentsatu zuen, baina ez zegoen ezer! Beste batean untxiak askatu genituen!

LUIAONDOKO JAIAK

08.08 ASTEAZKENA
SANTO DOMINGO

10:00 // Kalejira, Luiaondoko txistulariekin

11:00 // Gynkana

12:00 // Meza, Santo Domingoren ohorez

14:30 // Herri bazkaria
BASELIZAREN ZELAIAN

17:00 // Briska txapelketa

18:00 // Got Talent Santo Domingo

21:00 // Odolosteak denontzat

21:00 // Dantzaldia, ondorengo taldearekin:
GANEKO

08.09 OSTEGUNA

20:00 // Txorizoak eta disko-festa
Zabal DJrekin
OLETA JATETXEAN

08.10 OSTIRALA
SAN LORENTZO

11:00 // Tortilla eta Pintxo txapelketaren hasiera.

12:00 // Meza, San Lorentzoren ohorez

13:30 // Tortillak eta Pintxoen aurkezpena

14.30 // Herri bazkaria
BASELIZAREN ZELAIAN

16:30 // Tute txapelketa

17:00 // Umeentzako ur-txirrista

21.30 // Txintxorta denontzat

22:00 // Dantzaldia, ondorengo taldearekin:
GANEKO

Jabi Isasi

ERREZETA

PAELLA

KOMANDO SUKALDARI

San Lorentzon urtero paella prestatzen duen taldea

Osagaiak (200 lagunentzat):

· Arroz baporizatua: 18 kilo
· Txerri haragia (giharra): 12 kilo
· Txerri saiheskia: 80 kilo
· Txorizoa: 6 kilo
· Piper berdea: 8 kilo
· Piper gorria: 2 kilo
· Tipula zuria: 10 kilo
· Berakatza
· Arrautzak
· Oliba eta ekilore olioa
· Gatza

· Salda egiteko: 2,5 kilo hezur, tipula, azenarioa, porrua

Prestaketa:

1) Euren zukuak mantendu ditzaten, banatuta frijitu behar dira ekilore olioan, zatiturik, giharra, saiheskia eta txorizoa. Gatza orduan edo geroago bota daiteke.

2) Erabilitako olio horretan poxatu behar dira tipula eta berakatza, oso txiki moztuta. Doratu beharra dago, baina ez gehiegi. Piperra 15 milimetroko zatitan txikitu behar da, gutxi gorabehera.

3) Bestalde, saldaren osagaiak 3 orduz egosi behar dira, zatitu gabe. Arrautzak ere, eta gero zuritu aparte uzteko. Paella-ontzian bota osagai guztiak eta arroza gehitu, oliba olio txorrotarekin. Dena nahastu eta horrela utzi arrozak zaporeak har ditzan. Salda iragazkitik igaro eta bota arroza estali arte. Heren batean gainditu behar du arroza likidoak.

4) Su bizian egosi 30 minutuz, gutxi gorabehera, eta gatza bota. Sua itzali eta ontziaren taparen azpian mahai-oihal zuria jarri, baporea arrozaren gainean erori ez dadin berriro. Ordubete itxaron eta gero arrautzekin paella apaindu.

Oharra: Komando Sukaldarik arroz baporizatua erabiltzen du, besteak beste, almidoi gutxiago duelako. Horri esker, solteago geratzen da eta ez da gehiegi egiten. Izan ere, maiz, bazkariak dezente atzeratzen dira.

SOXOKO JAIAK

08.30 OSTEGUNA
EMETERIO DEUNA ETA CELEDONIO DEUNA

9:00 // Kanpai errepikapena eta suzirien jaurtiketa

9:30 // Soxoko IV. Mendi Martxa
Ganzorrotz mendi taldeak antolatutako ibilaldia. Izen ematea doakoa izango da

13:00 // Meza santua
Emeterio Deuna eta Celedonio Deunaren omenez egingo da

13:00 // Gaztelu puzgarriak eta triki-poteoa

18:00 // KonkiSoxo
"El Conquistador del fin del mundo" telebista -programa ezagunean inspiratutako txapelketa. Parte hartzaileek hainbat proba egin beharko dituzte, fisikoak zein bestelako trebezietan oinarritutakoak. Sari metalikoa egongo da irabazlearentzat. 2016. urtean ekin zioten norgehiagoka hau berriz antolatzeari, urtebeteko geldialdiaren ostean

19:00 // Mus txapelketa
Izen ematea 20 euro
SARIAK:
1. - 300 euro eta garaikurra
2. - 150 euro eta garaikurra
3. - Garaikurra

22:30 // Dantzaldia:
LISKER

08.31 OSTIRALA
RAMON NONATO DEUNA

13:00 // Meza santua
Ramon Nonato Deuna patroiaren omenez

13:00 // Gaztelu puzgarriak

13:30 // Dantzak
Artziniegako dantza taldearen eskutik

18:00 // Umeentzako jolasak

19:00 // Tute txapelketa
Izen ematea 20 euro
SARIAK:
1. - 250 euro eta garaikurra
2. - 100 euro eta garaikurra
3. - Garaikurra

21:00 // Herri parrillada

22:30 // Dantzaldia:
DJ KIKE MIX

00:00 // Mozorroak eta bingoa
Bingoaren sariak bi pertsonentzako afaria eta tokiko produktuekin osatutako saskia izango dira

00:30 // Dantzaldiaren jarraipena eta herri txokolatada, goizaldean

Josu Zaldibar

MENAGARAI-BEOTEGIKO JAIAK

09.26 ASTEAZKENA
MENAGARAIN

19:30 // Kanpai-jotzea, suziriak piztea eta txorizo dastatzea

20:00 // Txokolatada

21:00 // Su artifizialak

09.27 OSTEGUNA
MENAGARAIN

12:00 // Meza santua

13:00 // Luntxa eta zozketa herrikoia

09.29 LARUNBATA
BEOTEGIN

12:00 // Meza santua

13:00 // Bola jaurtiketa eta luntxa

17:00 // Umeen bola txapelketa

18:00 // Tokiko bola txapelketa
Gizonezkoak eta emakumezkoak

19:00 // Aiara dantza taldearen emanaldia

20:00 // Parrillada
Txorizoa, solomoa eta hirugiharra zerbitzatuko dira

20:30 // Berbena:
ZABAL DJ

22:00 // Areto dantzak

23:30 // Txokolatada

OPELLORAKO JAIAK

09.29 LARUNBATA

13:00 // Meza

13:30 // Luntxa

1:30 // Trikiti eta pandero emanaldia Etxebarria aita-semeekin

LUXOKO JAIAK

08.15 ASTEAZKENA

13:00 // Meza eta, ostean, luntxa

KOBATA-SAN BITORES JAIA

09.01 LARUNBATA

12:00 // Meza santua
Eskutxiko ahotsak abesbatzak emanaldia eskainiko du

13:00 // Artzain txakurren erakustaldia

14:00 // Artzain bati omenaldia

15:00 // Bazkari herrikoia
Rakatapla taldea arduratuko da janaria prestatzeaz

16:30 // Igel-toka txapelketa, haur zein helduentzako

18:30 // Sokatira: artzainak gainerakoen aurka
Umeen eta gazteen sokatira
Txapela jaurtiketa, haur zein helduentzat
Dantzaldia Iñaki Otegirekin
Txokolatada

ETXAURRENGO JAIAK

09.01-09.09

18:30 // Etxaurrengo Ama Birjinaren bederatziaurrena

08.08 LARUNBATA

18:30 // Bederatziaurrena eta zozketa

19:30 // Parrillada eta erromeria Izalde taldearekin

08.09 iGANDEA ETXAURRENGO AMA BIRJINAREN OMENEZKO JAIA

11:00 // Girotzea trikitiekin

12:00 // Meza nagusia
Ondoren birjinarekin prozesioa egongo da Aiarako lau administrazio batzarreko presidenteen eskutik
ELIZAKO ZELAIAN

13:00 // Aiara Dantza Taldearen dantza emanaldia
Jarraian, tartak zozketatuko dira

14:00 // Meza baselizan

14:30 // Bazkari herrikoia
Izoriako Arangutxi kultur elkarteko kideek prestatuko dute. 250 pertsonentzako tokia egongo da, gutxi gorabehera

16:00 // Keramika tailerra eta haurrentzako birziklapen jolasak

16:30 // Falkoneria erakustaldia

16:30 // Igel-toka txapelketa eta briska txapelketa arina

18:00 // Arrosarioa

20:00 // Arkume baten zozketa

OKONDOKO JAIAK

ABUZTUAK 4, 5, 8, 9, 22, 23, 24, 25 ETA 26

SERGIO TATO EGUREN

OKONDOKO ALKATEA

Beste urte batez, okondoar guztiontzako hain esanguratsuak diren data hauekin egiten dugu topo, San Roman eta San Bartolomeko jaiak direla eta. Espero dut prest egotea egun batzuk alaitasunean igarotzeko, lagun auzokide eta senideen konpainian.

Gure pregoilari gazteak, Maddi Otaolak, inor baino hobeto ezagutzen ditu gure herriko jaiak eta bera izango da festen hasierako suziria piztuko duena, gure bizitza lanpetuetan geldiune bat egin eta jaiez gozatzeko gonbita luzatuz.

Jai batzordearen, gazteen, nagusien eta kultur elkarteen aurretiazko lanaren emaitza dira jaiak. Horiei guztiei euren inplikazioa eskertu nahi diet.

Aurreko urteetan bezala, nabarmendu nahiko nuke gozamena eta dibertsioa uztargarriak dira pertsonekiko eta ingurugirorekiko errespetuarekin. Jai parekide, jasangarri eta euskaldunak nahi ditugu!

Espero dugu eginiko lana gustuko izatea. Jai zoriontsuak opa dizkizuet.

OKONDO UDALA

INMA ROIZ
IDAZLEA

Ez huts egin

Hurbil dago dagoeneko gure San Bartolome, energiaz beterik. Igaro dira udako egunik luzeenak, gaurik beroenak, eta baita urteko bainurik freskagarrienetako batzuk ere. Hala ere, oraindik badago zer ospatu. Abuztua hasi baino ez da egin, eta hilabete hau ez uda ez litzateke berdina izango gure jaiak gabe.

Okondoko festak San Bartolomeren inguruan egiten dira, gure patroia, eta baita herriko plazari sarrera egiten dion ermitaren inguruan ere. Bertan gauzatzen dira jaietako ekintza gehienak. Ez da bertara gerturatuko ez zen okondoarrik egongo.

Aurten Maddi Otaola izango da pregoilaria. Ondo merezitako ohorea, Gimnasia Erritmikoko Espainiako Txapelketan lortu dituen emaitza paregabeak ikusita. Irribarre egiteari utzi gabe mugitu, tolestu eta salto egiteko aparteko dohaina dauka.

Bere hitzen ostean hasiko dira guztion gozamen eta dibertsiorako prestatutako hiru jai egunak, baina haurrei zuzenduak egongo dira bereziki ekintzak. Eurak dira, euren xalotasun eta askatasunarekin, hobekien gozatzen dituztenak goizeko ordu txikietara arte amaitzen ez diren egun luze hauek.

Honakoa izango da tren batek gure herria zeharkatuko duen urteko une bakarra. Trenbidearen faltan, errepidetik egingo du bidea, baina harrera beroa izango du. Bere triki-traka isilari batuko zaie musika eta gu guztion zalaparta. Gauez zein egunez, etxean eta kalean, ez huts egin San Bartolomerekin dugu zitara. Denak zaudete gonbidatuak!

ARTIKULUA

OHIKO EKINTZA BITXIEKIN ETA BERRIKUNTZEKIN DATOZ OKONDOKO JAIAK

Abuztuan ospatuko dira Okondoko jaiak. Beti bezala, bi zatitan banatuak egongo dira. Okondogoienako San Roman festak egingo dira lehenbizi, abuztuaren 4tik 9ra. San Bartolome jaiak, aldiz, abuztuko bigarren hamabostaldian izango dira, 22tik 26ra.

Egitarauan ez dira faltako Okondoko jaien izaera definitu duten hainbat ekintza. San Roman eta San Bartolome jaiak hitz bakarrarekin definitu beharko bagenitu, "bitxiak" izango litzateke horretarako adjektibo egokiena. Hainbat ekintza berezi egiten dira herrian, dagoeneko jaien ikur bihurtu direnak.

Barraskilo lasterketa da ekintza nabarmenetako bat. Ume asko animatzen dira bertan parte hartzera. Zenbakiak jartzen dizkiete barraskiloei, eta lurrean markatutako zirkulu batetik ateratzen den lehena da irabazlea. Aurten txupinazo aren egunean (abuztuak 23) egingo dute ezohiko norgehiagoka hori, paellen herri bazkariaren ostean. Beste hainbat proba eta jolasetan aritzeko aukera ere egongo da: ski-taulan, txingetan eta zozkor apustuan.

Umeek eskaintza oparoa izango dute San Bartolomeko jaietan. Barraskilo lasterketaren ostean igerilekuetan izango dute zita, puzgarriak eta apar-festa egongo baitira.

Berrikuntzak

Ohiko ekintzez gain, berrikuntza batzuk ere txertatu dituzte aurtengo jaietan. Abuztuaren 24an ekimen deigarri bat egingo dute: Euskararen aldeko Txirrindulari Lasterketa Herrikoiaren lehen edizioa. Goizeko hamaiketan izango da zita, eta eguerdiko ordu-batak arte luzatzea aurreikusi dute.



SAN ROMAN

08.04 LARUNBATA

18:00-20:00 // Bola txapelketa

08.05 IGANDEA

11:00-13:00 // Bola txapelketa

08.08 ASTEAZKENA

19:00 // Umeentzako disko-festa: Partyman

19:00-19:30 // Bola txapelketa
Lehen 20 sailkatuen jaurtiketak egingo dira

20:30 // Odoloste jana
Arloteak taldeak girotua
LA VENTILLA TABERNAN

22:30 // Mariatxien emanaldia

23:00 // Mus txapelketa
LA VENTILLA TABERNAN

23:30 // Disko jaia

08.09 OSTEGUNA

12:00 // San Romanen ohorezko meza

12:30 // Parrillada eta pintxoak dastatzea
OKONDOGOIENAKO ESKOLETAN

13:30 // Igel-toka txapelketa
LA VENTILLA TABERNA

17:30 // Briska txapelketa
LA VENTILLA TABERNA

18:30 // Umeentzako parkea

20:00 // Makila jaurtiketa

21:00 // Afari herrikoia

00:00 // Disko-jaia

SAN BARTOLOME

08.22 ASTEAZKENA

17:00 // Futbito txapelketa

08.23 OSTEGUNA

11:00 // Paella txapelketa

11:00-14:00 // “Beldur Barik” gunea

12:15-12:45 // Kalejira eta pankartak jartzea jai-gunean barrena

13:00 // Pregoia eta jaien hasiera Maddi Otaolarekin

14:00-16:00 // Paellen bazkari herrikoia eta jokoak
Ski-taula, txingak, zozkor-apustua eta barraskilo lasterketa egingo dira

17:00 // Puzgarriak igerilekuan eta aparfesta

17:00 // Briska txapelketa

18:00 // Bola txapelketa

21:00h // Odoloste-jana eta txistorrada herrikoia

22:00 // Kontzertua

24:00 // Disko festa:
DJ MARKELIN

PREGOILARIA

MADDI OTAOLA (Okondo, 2000) GAZTEA IZANGO DA AURTENGO SAN BARTOLOME JAIETAKO PREGOILARIA. IZAN ERE ESPAINIAKO GIMNASIA SENIOR KATEGORIAKO TXAPELDUNA IZAN DA SAKONETA KLUBAREKIN.

"Ilusioa sortu dit Okondoko jaietako pregoilari izateak"

Guadalajaran lehiatutako Espainiako Gimnasiako Txapelketan irabazi zenuen, nola bizi izan zenuen?

Pozik. 6 hilabete eman nituen entrenatzen eta nire amets handiena bete nuen. Gainera, txapelduna izan naizenez, 1. mailan arituko naiz hurrengo denboraldian. Aintzat hartu beharra dago estatu espainiarrean 18 gimnasta besterik ez daudela. Urtez urte, hamabik bakarrik eusten diote kategoriari, eta besteak senior mailara itzultzen dira.

Hurrengo denboraldian, orduan, erronka berriak izango dituzu?

Bai, nire asmoa da kategoria mantentzea. Aurreko denboraldian 1. mailan egon nintzen, baina 13. sailkatu nintzen eta, ondorioz, seniorrera jaitsi nintzen. Hurrengo denboraldian berriro egin nahi dut saiakera.

Maila igoera asko nabaritzen da?

Ezberdina eta nabarmena da. Estatu espainiarreko gimnastarik onenak daude, azken finean. Hortaz, zailagoa da. Entrenamenduen aldetik, sailkapen ona lortu nahi badut, asko entrenatu beharko dut eta fisikoki hobetu. Edonola ere, medikuntza ikasketak abiatuko ditut eta ez dakit zenbat denbora eskaini ahal izango diodan. Dena den, nik gimnasiaz disfrutatzen dut eta horrela jarraitu nahi dut.

Denboraldi honetan, adibidez, 20 ordu entrenatu ditut astero, 4 ordu egunero astean zehar. Hurrengo denboraldian berdin mantendu nahi dut, baina ez dakit aukera izango dudan.

Nolakoa da gimnastaren egunerokotasuna?

Bi denboraldi mota daude; taldekoa eta bakarkakoa. Nik bakarkakoa nahiago dut eta horrela ari naiz. Taldean parte hartzen dugunean, batek kale egiten badu, guztiok egiten dugu. Bakarka, aldiz, norbera da bere hutsen arduraduna. Nik hori ondo daramat, nahiz eta txapelketan oso urduri jartzen naizen.

Beti lehiatu zara Sakoneta klubarekin?

Ez. Amurrioko Aresketa klubean hasi nintzen 8 urterekin eta gero Leioara aldatu nintzen 12 urterekin. Hurrengo denboraldian Leioan ikasiko dut, baina orain arte nire gurasoek eraman naute Okondotik Leioara. Oso gogorra izan da eurentzat, 4 ordu egiten zituztelako egunero autoan. Guztiok egin dugu esfortzua nik gimnasia egiteko.

Puntako kirolaria zara, horrek oihartzuna dauka?
Niri oihartzunak bost axola, egia esanda. Nik gimnasia egiten dut oso gogoko dudalako, ez besteek jakin dezaten Espainiako Txapelketa irabazi dudala. Ingurukoek badakite eta, ni bezala, oso pozik daude. Hori nahikoa da niretzat.

"Nik gimnasia egiten dut oso gogoko dudalako, ez besteek jakin dezaten Espainiako Txapelketa irabazi dudala"

Nolakoa da txapelketako giroa?
Gimnasten araberakoa da. Batzuk parte hartu eta gero oso jatorrak dira, baina lehiaketa baino lehen ez dugu ezta hitz egiten; begirada zorrotzak eta ezer gutxi. Hala ere, norberaren arabera. Batzuk ezagutzen ditut eta badakit nolakoak diren: ez ditut ezta agurtu behar eta beste batzuk ordea, berehala etortzen dira besarkatzera.

Aurten pregoilaria izango zara, zelan daramazu?
Ez dut ezer pentsatu, ezta prestatu. Alkateak deitu zidan etxera eta ilusioa sortzen dit, lehen aldia baita horrelako zerbait egitera gonbidatzen nautela. Izekorekin hitz egingo dut.

Gimnasia egiteak asko baldintzatu du zure bizitza?
Bai, eragina handia da. 8 urte nuenetik ikastea eta gimnasia egitea izan da nire bizitza. Nire egunerokotasuna izan da ikastolara joan, ikasi, entrenatu eta lo egitea. Batxilergoa bukatu berri dut eta azterketa mordoa egin ditut. Egia da noizean behin ateratzen naizela, baina ez daukat denbora askorik. Boladen arabera, batzuetan pentsatzen dut gehiago atera behar naizela, baina ondo baloratuta, gimnasia egiten eman dut denbora eta ez nuke aldatuko.

Espainiako txapelduna izatea da momentuz zure lorpen nabarmenena edo gehiago izan dituzu?
Duela bi urte Euskadiko Selekzioak deitu ninduen Espainiako Txapelketa batean parte hartzeko eta Espainiako hirugarrena izan nintzen. Hori dela medio, 1. mailara igo nintzen. Hurrengo urtean Espainiako Kopan Euskadiko Selekzioarekin 3. izan nintzen. Horiek izan dira nire garaipen garrantzitsuenak.

SAN BARTOLOME

08.24 OSTIRALA

11:00-13:00 // Euskararen aldeko I. Txirrindulari Lasterketa Herrikoia

12:00-14:00 // Txu-txu trena

12:30 // San Bartolomeren omenezko meza, Itzalde abesbatzarekin

13:00 // Eskupilota partidak

13:15 // Animazioa trikitiekin eta txistorrak dastatzea
FRONTOIAN ETA TXOSNAN

16:00-19:00 // Txu-txu trena

17:00 // Mus txapelketa

17:00 // Futbito txapelketaren amaiera

18:00 // Umore antzerkia

20:00 // Kontzertua

21:00 // Afari herrikoia
Hegaluze pintxoak eta sutan eginiko eusko -label hanburgesak

23:00 // Disko festa:
XAIBOR

alava turismo.eus

6 ARABAN GALTZEKO IBILBIDE

- A BIDEEN IBILBIDEA
- B ZENTZUMENEN IBILBIDEA.
- C BIZIPENEN IBILBIDEA.
- D TRADIZIOZKO BIZIMODUAREN IBILBIDEA.
- E OROITZAPENEN IBILBIDEA.
- F PARKE NATURALEN IBILBIDEA.

NATURA · ONDAREA · ENOGASTRONOMIA · TURISMO AKTIBOA · FAMILIENTZAKO TURISMOA · EKITALDIAK

Araban galtzeko ibilbideei buruz gehiago jakin nahi baduzu, jo ezazu hona:
www.alavaturismo.eus/index.php/eu/ibilbideak

visit araba álava

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

08.25 LARUNBATA

12:00 // Tortilla txapelketa
Bi kategoria egongo dira: 16 urtetik beherakoena eta nagusiagoena

11:30-14:0 // Umeentzako parkea

12:30 // Hildakoen omenezko meza

17:00 // Tute txapelketa

17:00-19:30 // Umeentzako parkea

17:00 // Plater tiroketa

18:00 // Bolo txapelketa
Emakumezkoen eta umeen kategoriak

20:00 // Frontenis txapelketaren finala

20:30 // Dantza plaza Patxi eta konpaniarekin

22:00 // Mozorro lehiaketa

23:00 // Berbena:
KEN-BAT
Atsedenaldian txapela jaurtiketa txapelketa egingo da

08.26 IGANDEA

12:30// Mesa erretiratuentzat eta lore eskaintza herriko pertsona nagusienari

14:00 // Amona eta aitonen omenezko bazkaria

16:30 // Dantzaldia eta jaien amaiera

URDUÑAKO KALE ETA AUZOETAKO JAIAK

ABUZTUAK 9 -IRAILAK 8

CARLOS BERGADO RUIZ (Urduña, 1963) MORRILLONAREN PAPERA EGITEN DU KALE BARRIAKO JAIETAN. ABUZTUAREN 15EAN BAINUETXE HOTELETIK BEHERA BOTAKO DA TIROLINA BATEN BIDEZ, HAURREI GOZOKIAK BOTATZEKO.

"Umeekin kalean gora eta behera joatea da Morrillonaren funtzioa"

Nola sortu zen Morrillona?

Ni baino lehen beste bi morrilloi egon dira. Biak ezagutu nituen, lagun onak ziren. Joaquin Ibañez zen horietako bat. Tertangan bizi zen eta oso parrandazalea zen. Jose Luis Biguri bere lagun mina zen, eta bera egon ezean ez zen jaistera ausartzen. Soka batetik zintzilik jaisten zen, inolako arnesik gabe. Hainbat urtez egon zen Morrilonaren papera egiten, zendu zen arte.

Berak sortu zuen orduan Morrillona?

Lagunartean bururatu zitzaien ideia, koadrilakoei. Bi urte zeramatzan Gasteizko Zeledoiak hiriburuko jaiei hasiera ematen, eta Urduñan antzeko zerbait egitea bururatu zitzaien. Horrela hasi ziren, gaur egun arte. Ni ume bat nintzen garai hartan. Joaquin hil zenean, Avelino Fernandezek hartu zuen Morrillona izatearen ardura, eta hainbat urte egon zen lan hori egiten. Beldurra zien altuerei, eta oso gaizki pasatzen zuen. Bera hil zenean niri proposatu zidaten, eta orduz geroztik nago Morrilloi gisa. Bainuetxe hotelaren erditik botatzen naiz.

Prestaketa berezirik behar da horretarako?

Ez. Lehen Urduñako mendizale batzuk arduratzen ziren tirolina jartzeaz. Orain, aldiz, Bilboko enpresa pribatu bat dator lan hori egitera. Aseguru bat dute. Aurretik soka ondo dagoela ziurtatzen dute eta egun osoa daude ekitaldia zaintzen.

Zein da, orduan, Morrillonaren funtzioa?

Egun osoko kontua da, txupinazoan hasten dena. Umeekin kalean gora eta behera joatean datza Morrillonaren funtzioa. Nagusien etxera eta baselizara ere joaten gara. Gelditu gabe igarotzen ditut jaietako hiru egunak.

Morrillona baino lehen, nolakoak ziren Kale Barriako jaiak?

Antzinan, herri bakoitzari jai-egun bat zegokion. Baina galtzen ari dira mota horretako festak. Jendeak parranda egin nahi du, baina ez du lan egin nahi. Morrillona izatea eskatu zidatenean etxean eztabaidatu nuen proposamena. Emazteak eta alabek ez zuten argi ikusten. "Beti zaude ergelarena egiten", esaten zidaten. Nik erantzun nien ergelarena egingo zuen norbait ez bazegoen jaiak bertan behera geratuko liratekeela. Norbaitek egin behar du paper hori.

Lehen urtea oroitzen dut. Nire alabak oporretan joateko asmoa zeukan, baina ez zen joan bainuetxetik behera jaisten ikusi ninduen arte.

Zuk ez duzu bertigorik, ez?

Ez, inola ere ez. Jaitsieraren zatirik zailena leihotik atera eta jaitsiera puntura arte iritsi artekoa da. Irristatu egin behar zara, erdi lotua zauden bitartean. Usoen aurkako arantzak daude, gainera. Hori da txarrena.

Argitasun handia dago, baina jendeak ikusi dezan. Niri itsutu egiten naute fokuen argiek, ez didate ondo ikusten uzten.

Hortik aurrera, baina, askoz errazagoa da dena. Tirolinatik jaisten zara, eta listo.

"Kanpotik jendea etorri da Morrillona ezagutzera"

Noiz arte duzu Morrillona izaten jarraitzeko asmoa? Belaunaldi aldaketa bermatua dago?

Jai batzordeak egoki ikusten badu, ni prest nago Morrillona izaten jarraitzeko, osasunak uzten didan bitartean. Baina beharrezkoa da atzetik norbait egotea, belaunaldi aldaketa bermatzeko. Jaia desagertu egingo da bestela. Kale bateko jaia da, eta hurrengo Morrillona ere kalean bizi den norbait izatea izango litzateke egokiena.

Arazoa honakoa da: Morrilonak ergelarena egin behar duela, hori baita bere funtzioa, jendea dibertitzea. Gustatuko litzaidake erreleboa izatea. Azken urte hauetan saiatu izan gara jende gaztea jaien antolakuntzan inplikatzen: boletoak saltzen, parrillada prestatzen... baina denetariko jendea dago. Gazte batzuk badute interesa jaiari jarraipena ematean, baina beste batzuei bost axola zaie.

Hala ere, aipatu beharra dago iazko jaitsieran jende andana egon zela, nahiz eta Amurrio eta Laudioko jaiekin kointziditu zuen. Horregatik uste dut garrantzitsua dela festa hau ezagutzera ematea, kanpoko jendea ere bertaratzera animatu dadin. Iaz nire Logroñoko lagun batek jaitsieraren bideo bat bidaltzeko eskatu zidan, bere lagunek ez zutela Morrillonaren afera sinesten; eta aurten 20 lagun etorriko dira Logroñotik jaitsiera ikustera!

ORRUÑOKO JAIAK

08.09 OSTEGUNA

12:00 // Meza
Ostean, luntxa eta erromeria
DELIKAN

17:00 // Musa
ORRUÑON

18:30 // Txokolatada
ORRUÑON

20:30 // Berbena
ORRUÑON

KALEBARRIAKO JAIAK

08.14 ASTEARTEA

17:30 // Txupinazoa

17:45 // Saskiak egiten ikasteko tailerra

18:00 // Umeentzako igel txapelketa

18:30 // Umeentzako jolasak

20:00 // Umeentzako sokamuturra

20:30 // Patata Zuritzaileen II. Txapelketa

21:30 // Cinezuma
Zine-emanaldia kalean

KALEBARRIAKO JAIAK

KOROATZE JAIAK

08.15 ASTEAZKENA

12:00 // Suzirien jaurtiketa

12:15 // Buruhandiak

13:30 // Txapela jaurtiketa

14:30 // Auzokideen bazkaria

17:00 // Mus txapelketa

19:00 // Helduentzako igel txapelketa

19:30 // Magia ikuskizuna

21:00 // Morrillonaren jaitsiera

21:30 // Afaria

22:30 // Berbena DJ

08.16 OSTEGUNA

9:00 // Diada

10:00 // Lore eskaintza santuari

12:30 // Meza eta luntxa

13:30 // Trikiti kalejira

16:00 // Nagusien egoitzara bisita

17:00 // Umeentzako jolasak

18:30 // Txokolatada

19:00 // Buruhandiak

20:00 // Zozketa

08.31 OSTIRALA

20:00 // Kalejira Asturiaseko El Trasno gaita taldearekin

21:30 // Kontzertua:
BIDAIA
Ipar Euskal Herriko taldea
FORU PLAZAN

23:30 // Kontzertua:
XABI ABURRUZAGA TRIO
Hego Euskal Herriko taldea

1:00 // DJ Urdufolk

09.01 LARUNBATA

12:30 // Kalejira Asturiaseko El Trasno gaita taldearekin

18:00 // Kontzertu didaktikoa Ander Garciarekin
ANDRA MARI IKASTETXEKO ARETOAN

19:30 // Kalejira Getxa Goi txistulari taldearekin

21:00 // Urdufolk lehiaketaren VI. Edizioko finala, ondorengo taldeekin:
LA KABHALA BAND
ALICIA ALONSO & GUILLERMO COPELLO
THE TAVERNERS

09.07 OSTIRALA

17:30 // Jaien hasiera txupinazoaren jaurtiketarekin

18:30 // Jolas tradizionalak eta bizikleta jokoak

20:00 // Txokotalada

22:00 // Berbena:
DJ RA

09.08 LARUNBATA

11:00 // Patata tortilla txapelketa (tipularekin)
SARIAK
Helduak:
1. 50 euros
2. 35 euros
3. 20 euros

Adin txikikoak (16 urte arte):
1. 40 euros
2. 30 euros
3. 15 euros

Jai batzordeak patatak, tipulak eta arrautzak emango ditu, gainontzeko osagai eta tresnak parte hartzaileek eraman beharko dituzte.

13:00 // Meza
Hamaiketakoa egongo da irteeran, bertaratutako guztientzat
SANTUTEGIAN

13:00 // Tortillen aurkezpena eta epaileen erabakia

14:00 // Tortillen dastatzea, txosnan

18:00 // Mozorro lehiaketa

19:00 // Gure Ahaleginak txakolinaren dastatzea

21:00 // Auzokoentzako afaria

22:00 // Berbena:
DJ RA

3:00 // Berakatz zopa

JORGE UGALDE
ARKITEKTURA-ESTUDIOA
ADITUA I.E.E. ETA ZUREZKO BIRGAITZEETAN
Kale Barria 11, Urduña 630983566 / 945384108 · jugalde@jorgeugalde.es
EGIN DEZAGUN ZURE BIZILEKUA ETXE!

ITURGINTZA
BEROKUNTA ETA
ERABERRITZEAK
La Antigua
Tel. 679 52 17 79
La Antigua Pasealekua - URDUÑA

ARRANKUDIAGAKO JAIAK

ABUZTUAk 14-20

ARRANKUDIAGAKO JAIAK 2018

Abuztuak 14, 15, 16, 17, 18, 19 eta 20

ABUZTUAK 14 (asteartea) BEZPERA
17:30 KAMISETAK BANATZEA
18:00 XXX. MARMITAKO LEHIAKETA
- Izenak ematea: 18:00etatik 18:30era
19:30 XXI. TORTILLA TXAPELKETA
(0 eta 20 urte bitartekoentzat)
- Izenak ematea: 18:00etatik 18:30etara
20:15 TXUPINAZOA
(Emakumeen sarearen eskutik)
22:30 MARISKAL DJ

ABUZTUAK 15 (asteazkena) ANDRA MARI
10:30 DIANA
11:00 MEZA
12:00 ALTXORRAREN BILA
-MATXINKORTAren eskutik-
19:00 PILOTA PARTIDAK - KAMARAKA E.-
20:30 JAIALDIA -HERRIKO MUSIKA ESKOLA-

ABUZTUAK 16 (osteguna)
12:00 UMEEN PINTXO LEHIAKETA
14:30 BAZKARIA
16:00 BINGOA
20:00 PINTXOPOTEA
22:00 DJ

ABUZTUAK 17 (ostirala)
GAZTE EGUNA
12:00 HITZALDIA, gaztetxean
13:00 POTEOA
15:00 BAZKARIA, gaztetxean (OSTERABE)
19:30 ESKUPILOTA FINALA
22:00 KONTZERTUA
(HILEAN BARIKU BAT +) gaztetxean

ABUZTUAK 18 (zapatua)
UMEEN EGUNA
11:30 KALEJIRA, Garondotik Elexaldera
12:00 UMEENTZAKO JOLAS PARKEA, Elexalden
14:30 UMEEN BAZKARIA. (Gizarte Etxean)
Bazkarirako izenak emateko zerrendak jarriko dira Agirre tabernan, Elexondo tabernan, Batzokian, Iberlanda taberna eta Gizarte Etxean. Apuntatzeko epea: abuztuaren 14a
16:30 APARRA BOTAKO DA UMEENTZAT, Garondon
17:30 BOLOAK. Umeen tirada
18:30 BOLOAK. Nagusien tirada, J.I. Larrazabalen III. oroimenezkoa
19:00 DISKOTXANTXA
21:30 KANPAMENTUKOEN EKITALDIA, frontoian

ABUZTUAK 19 (domeka)
KOFRADIA EGUNA
10:30 DIANA
11:00 MEZA
12:00 TXAKOLIN DASTATZEA, AZOKA
12:30 GOOOL!, umeen saioa (Javier Eskalza peña)
13:30 KONTZENTRAZIOA: "Euskal Presoak Euskal Herrira"
14:00 UMEEN KOFRADIA BAZKARIA
14:30 KOFRADIA BAZKARIA, eliz atarian. Txartelak, Agirre tabernan, Elexondo tabernan, Batzokian, Ekilore dendan, Iberlanda tabernan eta Gizarte Etxean jarriko dira salgai
16:30 Kantuak, JOXE MENDIZABAL
17:00 MUS TXAPELKETA
19:30 GOOOL!, helduen saioa

ABUZTUAK 20 (astelehena)
BERAKATZ EGUNA
19:00 PILOTA PARTIDAK
21:00 ODOLOSTEAK AFALTZERA herriko tabernetan
22:00 GAUPASA: HESIAN + INGOALDEU?
05:00 "BERAKATZ ZOPA" eta JAIEN AMAIERA

ONDO PASA JAIETAN!!

ITZIAR DUOANDIKOETXEA GONZALEZ
ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO ALKATEA

Ate joka daukaguz gure herriko jairik nagusienak, Andramariak.

Jai Batzordekoak, urtean zehar, egitaraua prestatzen ibili dira, Eskerrik asko egin dozuen lanagatik.

Eskerrak ere, bihotzez (musu truk), herriaren alde ibili zarien guztioi, bereziki auzolanean, lantaldeetan, elkarteetan...

Aurtengo jaietan ere, elkartasuna, adiskidetasuna, errespetua, berdintasuna... bultzatu dagigun. Baita ere, izan dagiguzan gogoan garai latzetan bizi diren herriak eta pertsonak eta edozein arrazoiagatik jaiak hemen ospatu ezin izango dabezanak.

Jai zoriontsuak, euskal giroan eta umore onean igaro dagiguzala.

Bihotz bihotzez, besarkada bana.

GORA ANDRAMARIAK!!!

ARRANKUDIAGA-ZOLLO UDALA

TXOMIN EGILUZ

HISTORIAZALEA

"El agarrao", legez kanpokoa Arrankudiagan

1908an Arrankudiagako alkateak estatu espainiarrean harrotu zituen hautsak, "el agarrao" dantzatzea debekatu baitzuen herrian dekretuz. Aginduak egunkari espainiarretan aldeko eta kontrako artikuluak sortu zituen erlijioa, morala eta abertzaletasuna nahastuta. Baina zer zen "el agarrao" eta zergatik sortu zen polemika?

"El agarrao" deitzen zitzaion, oro har, Euskal Herritik kanpo ekarritako zenbait dantzari; vals, pasodoble... Dantza mota horietan gizonezkoak eta emakumezkoak bikoteka lotzen ziren, ez antzinako dantzetan bezala. Eztabaidaren aurrekariak argiak ziren; Sabino Aranaren testu batzuetan dantza berri horiek kritikatzen ziren eta tokikoak goraipatu, esaterako.

Horregatik, ohitura berriek abertzaleen artean jaso zituzten hainbat kritika. Hain zuzen, atzerrikoak eta katolizismoaren kontrakoak zir ela argudiatzen zuten. Zehazki, indar abertzaleek -fededun sutsuak- leporatzen zieten tradizionalistei zein liberalei euskal lurraldean sartzea espainiartzeko ahalegin moduan, betiko morala urratuta.

Gauzak horrela, 1908ko uztailaren 4an, Manuel de Solaun y Bodequi Arrankudiagako alkateak dekretua zabaldu zuen "el agarrao" debekatzeko. Norbait ikusiz gero dantza hori praktikatzen, udalak 5 eta 25 pezeta arteko isuna jarriko lioke dantzariari. Gainera, berriro "el agarrao" dantzatuko balu pertsona berak, epaitegietan salaketa jasoko luke, agintariei men ez egiteagatik.

Arrankudiagan ez ezik, bestelako herritan ere debekua ezarri zuten, Mungian, adibidez, eta gaia egunkari espainiarretara heldu zen. Argitarapen katolikoek eta EAJkoek, nola ez, neurria babestu eta txalotu zuten: La Hormiga de Oro aldizkariak egin zuen hori, adibidez. Liberalek eta ezkertiarrek, ordea, ez zuten begi onez ikusi erabakia. El Heraldo de Madrid, El Sol eta La Época izan ziren horietako batzuk. Are gehiago, Isidoro Acebedo "La Lucha de Clases" egunkariko zuzendaria epaitu zuten artikulu bat idazteagatik Arrankudiagako aferaren harira. 1908ko azaroan epaitu zuten erlijioa iraintzeagatik eta absolbitua izan zen.

EGITARAUA

08.14 ASTEARTEA
BEZPERA

17:30 // Kamisetak banatzea

18:00 // XXX. Marmitako Lehiaketa
Parte hartzeko izena eman beharko da 18:00etatik 18:30era bitartean

19:30 // XXI. Tortilla Txapelketa
0 eta 20 urte bitarteko herritarrei bideratutako lehiaketa izango da

20:15 // Txupinazoa
Emakumeen sarea arduratuko da aurtengo pregoia irakurri eta jaien hasiera suziria pizteaz. "Ematen ari den mugimendu feministaren deslegitimazio saiakeraren aurrean, babes osoa eman nahi diogu mugimendu horri, autodefentsa feministan berresten", adierazi dute jai batzordeko kideek; "horregatik, aurten herrian sortu berri den emakume sareari emango diogu hitza, asko daukatelako esateko eta oihukatzeko"

22:30 // Mariskal DJ

08.15 ASTEAZKENA
ANDRA MARI

10:30 // Diana

11:00 // Meza

12:00 // Altxorraren bila
Matxinkorta mendi taldearen eskutik

19:00 // Pilota partidak
Kamaraka elkartearen eskutik, frontoian

20:30 // Jaialdia
Herriko musika eskolan

PREGOILARIA

ARRANKUDIAGA-ZOLLON SORTUTAKO EMAKUME SAREKO KIDEAK ARDURATUKO DIRA AURTEN ANDRA MARI JAIETAKO PREGOIA IRAKURRI ETA LEHEN SUZIRIA PIZTEAZ.

“Ahalduntzeko erabili nahi dugu pregoia, lanketa berezia egiten ari gara horri begira”

Zer moduz jaso duzue pregoilari izatearen proposamena?

Sorpresa handia hartu genuen proposamena jasotzean. Ilusio handia egin digu. Modu batean edo bestean, herriak azken urteko gure lana baloratu egin duela sentitu dugu, xumea izan bada ere. Emakumeok jaietan ere espazioa hartzen ari gara eta horretan jarraituko dugu. Sinboliloki balkoira ateratzea eta txupinazoa botatzea ederra izango da.

Nola eta zertarako sortu duzue emakume sarea? Zertan datza? Zein helburu ditu?

Azken urteetan somatu egiten zen emakumeok bagenuela beharra gure bizipenak konpartitzeko. Duela 5 bat urte autodefentsa feministaren tailer batean hainbat adinetako emakumeak batu ginen eta giro berezia sortu zen. Arrankudiagan eta Zollon, eskolatik hasita, adin ezberdinetako pertsonen arteko harremanek garrantzia berezia izaten dute bizitza sozialean. Batzeko eta idea hauek indartzeko beharra sentitu genuen.

Bestalde formaziorako beharra ere ikusi genuen. Hau da, norbanakoaren bizipenak kolektiboan konpartitu eta indartzea dugu helburu. Hala ere, badakigu egun daramagun bizi-erritmoarekin zaila dela taldea zaintzea eta, ondorioz, helburu txiki eta xumeak jartzen dizkiogu sareari, denboran iraun dezan.

Greba feministaren *La manadaren* auziaren gaineko protesta jendetsuak... azken hilabeteetan hainbat gertaera garrantzitsu bizi izan ditu mugimendu feministak. Nola bizi izan dituzue ekimen horiek Arrankudiaga-Zollon?

Herri txikiak dira gureak eta holako egunetan nahiago izaten dugu eskualde edota herrialdeko deialdietan parte hartzea, horrela beste emakume gehiagorekin batu

eta indar handiagoa egin eta sentitzen dugulako. Hala ere, martxoak 8 arrakastatsuaren hurrengo egunean, Arrankudiagako plazan elkarretaratzea egin genuen bezperako eguna borobildu eta baloratu nahian. Jendetza batu ginen, kalera irteteko behar eta nahia dagoenaren isla izan zen.

Baduzue pregoia prestatuta? Zer nolakoa izango da?

Aaah sorpresa! (Barreak) Ahalduntzeko erabili nahi dugu eta lanketa berezia egiten ari gara jendaurrera ateratzeak sortzen dizkigun beldur guztiei aurre egiteko. Kolorea izango da gure oinarria, dantza eta iraultza! Herri txikiek sarri beldurra ematen dute, baina horrek ere asko irakasten digu...

“Modu batean edo bestean herriak azken urteko gure lana baloratu egin duela sentitu dugu”

“Ikasturte hasieran egin genuen hiruhileko feminista errepikatzea da gure helburua”

Pregoiaren irakurketaz gain, baduzue beste asmo edo proiekturik jaiei begira?

Sare moduan ez. Ez dugu behar berezirik sentitu. Sarekideek jai batzordean, gizarte etxean... parte hartzen dute eta gure ikuspegi feminista txertatzen dute toki horietan.

Jaiak amaituta, zer asmo duzue emakume sare gisa epe ertain-luzeari begira?

Ikasturte hasieran egin genuen hiruhileko femista errepikatzea da gure asmoa. Hiru tailer antolatu genituen, emakume asko batu eta berriro elkartzeko gogoekin geratu ginen. Orduan egin genuen bezala, lehenik eta behin gure eta herriaren interesak zeintzuk diren aztertuko dugu eta ondoren hauek lantzeko egokienak diren tailerrak antolatu.

EGITARAUA

08.16 OSTEGUNA

12:00 // Umeen pintxo lehiaketa

14:30 // Bazkaria

16:00 // Bingoa

20:00 // Pintxo-potea

22:00 // DJa

08.17 OSTIRALA GAZTE EGUNA

12:00 // Hitzaldia
GAZTETXEAN

13:00 // Poteoa

15:00 // Bazkaria
Bazkalostean Ugaoko Osterabe talde akustikoak joko du, hainbat abesti ezagunen bertsioak eskainiko ditu
GAZTETXEAN

Geuria.eus

19:30 // Eskupilota finala

22:00 // Kontzertuak
HILEAN BARIKU BAT
TALDE SORPRESA
GAZTETXEAN

08.18 LARUNBATA
UMEEN EGUNA

11:30 // Kalejira, Garondotik Elexaldera

12:00 // Umeentzako jolas parkea, Elexalden

14:30 // Umeen bazkaria
Bazkarirako izenak emateko zerrendak jarriko dira Agirre tabernan, Elexondo tabernan, Iberlanda tabernan, Batzokian eta Gizarte Etxean. Abuztuaren 10a izango da izena emateko azken eguna
GIZARTE ETXEA

16:30 // Aparra botako da umeentzat, Garondon

17:30 // Boloak: Umeen tirada

18:30 // Boloak: Nagusien tirada. J.I. Larrazabalen III. oroimenezkoa

19:00 // Diskotxantxa
Xiriki eta Milikik dantzan jarriko dute plaza, hainbat kanta ezagunen koreografiak taularatuta. Ume zein familiei zuzendutako ikuskizuna izango da

21:30 // Kanpamendukoen ekitaldia
Kanpamenduan hartutako argazki eta bideoak proiektatuko dira frontoian

08.19 IGANDEA
KOFRADIA EGUNA

10:30 // Diana

11:00 // Meza

12:00 // Txakolin dastatzea eta azoka

12:30 // Goool!, umeen saioa

13:30 // Kontzentrazioa: "Euskal presoak Euskal Herrira"

14:00 // Umeen kofradia bazkaria

14:30 // Kofradia bazkaria
Txartelak Agirre tabernan, Elexondo tabernan, Iberlanda tabernan, Batzokian, Ekilore dendan eta Gizarte Etxean jarriko dira salgai
ELIZAREN ATARIA

16:30 // Kantuak
Joxe Mendizabal

17:00 // Mus Txapelketa

19:30 // Goool!, helduen saioa

08.20 ASTELEHENA
BERAKATZ EGUNA

19:00 // Pilota partidak

20:30 // Odolosteak afaltzea herriko tabernetan
Auzolanean eginiko 1.000 odoloste inguru zerbitzatu ohi dira, 200 kilo odolki baliatuta.

20:30 // Kontzertuak

HESIAN
INGO AL DEU?

Gaizka Peñafiel

ARTIKULUA

JESUS GOROSTIZAGA, SU ARTEAN AUZOGINTZAN ARITUTAKO BIZILAGUNA

Jesus Gorostizaga -eskuman- Atxetako jaietan. **Atxetako Jai Batzordea**

Jesusen irribarrean oroimenean iltzatua dugu Atxetako bizilagunok. Bere alaitasuna, bere umorea eta paella egiteko zuen trebezia ahaztezinak dira guretzat. Gure oroitzapenak antzekoak dira herri bazkaria plaza azpian egiten zenetik udal lokala abian jarri zen arte: egurrezko koilara eskuan zeraman, amantal gar garbi-garbia, ontasuna eta begikotasuna bidelagun zituela. Denok dugu Jesusen oroitzapen atsegin bat. Adinez nagusia izan arren, egia da Jesus azken unera arte egon zela aktibo, lehiaketa gastronomikoetan parte hartzen edo jai eta ospakizunetarako bazkariak prestatzen. Atxetako jaien programaren prestaketa hasi zenean, jai batzordeari proposatu zitzaion lehiaketa gastronomikoari Jesus Gorostizagaren izena jartzea. Proposamenak oso harrera ona izan zuen antolakuntzaren partetik. Zergatik Atxetan? Jesusen figuren presente egon den toki bat badago, Atxeta auzoa delako hori, jaietan batez ere. Jai horiek 80. hamarkadan berreskuratu ziren, eta orduan ekin zion Jesusek ospakizuneko bazkariak prestatzen laguntzen. Auzoko bizilagun gehienak bertaratzen ziren otordu herrikoi horietara. Egitarauko txapelketa gastronomikoetan ere parte hartzen zuen.

Bizipen ugari

Bere bizitzak anekdota asko izan ditu. Bizikletekin egiteko Zinta Lehiaketa proba antolatu zuen behin Arrankudiagako Andra-Mari jaietan, duela urte asko, diktaduraren sistema politikoa indarrean zegoela. Bizikletan gelditu gabe aritzean zetzan joko hori: zintaren mutur batean kokatutako eraztun batean makil txiki bat sartu behar zen. Oso ondo egon zen, parte hartzaile askok lortu zuten makila eraztunean sartu eta zinta hartzea. Baina salaketa bat jazo zen, eta Guardia Zibila ohartu egin zen eraztun bakoitzak hiru zinta zeramatzala (gorria, zuria eta berdea, ikurrinaren hiru koloreak). Italiako banderaren koloreak zirela esan zien Jesusek, disimulatzeko. Lehiaketan parte hartu zuten hainbat herritarrek isuna jaso zuten, keinu nazionalista horregatik.

Hala ere, Jesusek ez zion gauzak antolatzeari utzi. Gizon zentzudun eta ausarta zen. Gainontzekoak pozik egotea eta ondo pasatzea zuen helburu. Nabarmendu beharra dago bera izan zela Andra Mari kofradiaren sortzaileetako bat, Andra Mari jaietan bazkari herrikoi bat eskaintzen duena. 30 urtez egon zen bertan laguntzen, oso modu berezian. Horrez gain, Atxetako jaietako herri bazkariko sukaldari ofiziala izan zen Antonekin batera. Artista hutsa zen sukaldean. Oso gogoko zuen marmitakoa eta beste mota batzuetako jakiak egitea, baina elkarbanatzeko beti.

Euzkadiko ohituren, tradizioen eta kulturaren zale amorratua izan zen beti. Bihotza irekitzen zitzaion txistua entzuten zuenean. Oso gogoko zuen jota dantzatzea, eta baita abestea ere: herri bazkarietan zein Poiun larunbatetan bere koadrilarekin zegoenean edo ardo batzuk edaten zituenean. Beti zegoen elizako abesbatzan. Bere beste pasioetako bat Goikoganera Aberri Egunaren bezperan igotzea zen, bertan ikurrina jartzeko. Bera arduratzen zen igotzen ziren gainontzeko herritarrentzako txistorra, txorizoa eta hirugiharra prestatzeaz.

Bere familiaz, bere auzoaz (Poiu-Arene), bere herriaz (Arrankudiaga) eta bere nazioaz (Euzkadi) maitemindutako pertsona zen Jesus. Egunerokoan erakusten zuen hori, bere izateko eta sentitzeko moduarekin. Bere etxea eta familia lehenbizi beti, bere lana ondo egitea gero, eta bere auzokide eta lagunekin egotea ondoren, hori zen bere bizitzeko modua. Bere ortuaren zale amorratua ere bazen. Bere piper berdeak ederrak ziren eta maisua zen etxean txorizoak egiten.

Eskerrik asko Jesus, orain eta beti, zure izateko eta sentitzeko moduagatik.

Egileak: Jose Aspiazu, Bingen Larizgoitia eta Atxetalde Kultur Elkartea. Testu osoa Aiaraldea.eus atarian ikusgai.

09.15 LARUNBATA

Goiz osoan zehar baserriko produktuen salmenta egongo da

12:00 // Txupina eta kalejira

12:00 // Umeentzako ekintzak

12:30 // Txapelketa gastronomikoa:

"jESUS GOROSTIZAGAREN IX. MEMORIALA"

MARMITAKOA
Oinarriak:
- Izen-ematea 12:30ean
- Lapikoen aurkezpena 13:30ean
- Oinarrizko osagaiak: Atuna, patata, piperra eta tipula
- Gutxienez 6 pertsonentzat
- Oinarriak betetzen dituzten lapikoek gazta bat jasoko dute

Sariak:
1. - 100 euro eta trofeoa
2. - 75 euro eta euskal pastela
3. - 50 euro eta euskal pastela

TORTILLA
Oinarriak:
- Izen-ematea 12:30ean
- Aurkezpena 13:30ean
- Aurkezpen librea
- Tortila bakoitzeko euskal pastel bat emango dugu

Sariak:
1. - 50 euro eta trofeoa
2. - 40 euro eta gazta
3. - 30 euro eta gazta

14:30 // Sari banaketa eta bazkaltzera

16:00 // Umeentzako ekintzak

17:00 // Buruhandiak

18:00 // Magia ikuskizuna M. Romerorekin

19:00 // Txokolatada Herrikoia

19:30 // Ikuskizuna:

"SARDINA BAKALAU"

Anita Maravillas Konpainiarekin
Anita Maravillas konpainiaren "panpina-kalejira". David Rodriguez Peña aretarrak parte hartzen du ikuskizunean, trikitia jotzen

Zarauzko Hitza

20:30 // Patxi Perezekin dantza plaza

22:00 // Txistorrada herrikoia

22:30 // Kontzertua:

PURO RELAJO

09.16 IGANDEA

12:00 // Diana eta kalejira

12:30 // Euskal kantak Nafarroa Kanta Taldearekin

13:00 // Meza

13:00 // Umeentzako ekintzak

14:30 // Bazkari herrikoia eta bingoa

18:00 // Bakarrizketak Gemma Martinez eta Iñigo Salinerorekin

19:15 // XXIX. Igel txapelketa

20:15 // Sari banaketa

20:00 // Azken bolandera

AMURRIOKO JAIAK

ABUZTUAK 12, 13, 14, 15, 16 ETA 17

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA
AMURRIOKO ALKATEA

Herritar hori: 2018ko txupinazoaren eta Iguarrakoaren etorreraren atarian gaude, eta, beste urte batez, ilusioz eta dibertsioz betetako sei eguni hasiera emango diegu.

Gogoz itxaroten ditugu, urtez urte, Amurrioko kultura eta kirol-elkarteen jardueraz betetako jai hauek. Garai batean, urte osoa egoten ziren zaindariaren festen zain; izan ere, ondo pasatzeko tarteak gutxi ziren eta gogoz itxaroten zituzten. Egun, nahiz eta gauzak aldatu diren, Abuztuko Jaiak ilusiorako, elkar topatzeko eta ondo pasatzeko tartea dira, eta koadrilek rol erabakigarria hartzen dute.

Errepara diezaiogun pregoilariaren garrantziari. Zaraobe saskibaloi taldea Amurrioren ordezkari ezin hobea izan zen Urrezko Guk sariaren hartzaile gisa. Orain, Mateo Balbuenak ordezkatuko ditu. Gure aurreko garaietan gertatutakoa eta bizi izandakoa ezagutzera emateari emandako gizona da, eta Amurrioren izena zabaltzen lagundu du bere 100 urte baino gehiagoko bizitzan.Egun hauek gurekin ospatu ezin dituztenak gogoan, bertakoak eta kanpokoak gonbidatzen ditut jaietan aktiboki parte hartzera, Amurrion dakigun moduan: errespetuz eta armoniaz.

Ongi etorri jaiak, ongi etorri Iguarrako. ONDO PASA GUZTIOK!

AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

AMURRIO UDALA

PREGOILARIA


Anselmo Lorenzo fundazioa

MATEO BALBUENA, MILIZIANO KOMUNISTA, IDAZLEA, PENTSALARIA... ETA ORAIN PREGOILARIA ERE

Amurrioko Jaietako pregoia berezia izango da, ziur. Erraz aurreikusi daiteke hori pregoilaria nor izango den kontua hartuta. Mateo Balbuenari egokitu zaio aurten festei hasiera emateko diskurtso hori prestatzea. Ez da herriko kultur edo kirol talde beterano bateko kidea, ezta oso pertsona ezaguna ere. Bere bizitzan pairatutako gorabeherengatik eta eginiko ekintzengatik hautatu dute pregoilari izateko.

San Pedro mendian borrokan

1913an jaio zen Balbuena, Leonen. Bai, 105 urte beteko ditu datorren irailaren 21ean. Oso gaztea zela hasi zen Espainiako Alderdi Komunistan militatzen. Asturiaseko iraultzan parte hartu zuen, eta Guda Zibileko gorabeherek ekarri zuten Aiaraldera. "Bilboko zutabe batekin etorri nintzen eskualdera, 1936ko abuztuaren hasieran, etsaia Urduña konkistatzen saiatu zelako", azaldu zuen Balbuenak Aiaraldea hedabidearekin eginiko elkarrizketa batean, "San Pedro mendia okupatu genuen. Hor egon ginen borrokan egun batzuk, etsaiak amore eman behar izan zuen arte".

Leandro Carro bataloi komunistaren teniente gisa jardun zuen Balbuenak Aiaraldean. Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere aritu zen borrokan. Kantabriara joan zen gero eta Torrelavegan zauritu zuten. "Jainkoarengan sinetsiko banu, biziraun izana mirari bat izan zela esango nuke, bonba defentsiboez beteriko gerriko bat bainuen jarria eta ez zuen eztanda egin".

Frankisten kartzelan preso

Balbuena Teruelen zegoen guda amaitu zenean. Estatu Frantsesera ihes egiten saiatu zen, baina frankistek atxilotu zuten bidean. "Etxola batean lokartu nintzen. Handik denbora gutxira hotza sentitu nuen buruan: Guardia Zibilen fusilen kanoiak ziren. Inguratuta zuten etxola".

Hainbat kartzeletan egon zen gatibu, baina ez zuten fusilatu. "Preso eraman ninduten, baina handik sei hi-

labetera niri buruzko informazioa heldu zen Barakaldotik. Pertsona ona nintzela zioten, eta ez nintzela inoiz tabernetan sartzen. Azken hori egia zen. Bertan ez ninduten ezagutzen, eta ez ziren konturatu militantea nintzela". Handik gutxira geratu zen aske, baina beranduago berriro murgildu zen politikan, eta berriz atxilotu zuten. Emaztearekin akademia sortu ostean, Alderdi Komunistan lan egiteari utzi zion.

"Bilboko zutabe batekin etorri nintzen eskualdera, 1936ko abuztuaren hasieran, etsaia Urduña konkistatzen saiatu zelako"

Idazle eta pentsalari nekaezina

Urteak daramatza Balbuenak Lezamako baserri batean bizitzen, Guda Zibilean lubaki izan zuen San Pedro mendiaren magalean. Bakarrik bizi da, eta orain dela oso gutxira arte bere kabuz jaisten zen ostegunero Amurriora, azokan erosketak egitera. Ehunka liburu ditu etxean, eta baita idazmakina zahar bat ere. Makina bat liburu idatzi ditu makina horrekin. Hamahiru lan argitaratu ditu, hainbat motatakoak: antzezlanak, eleberriak, saiakerak... Gaurkotasun politikoa oso gertutik jarraitzen du. Hori argi utzi zuen iragan martxoan Urrezko Guk saria eman ziotenean. Pentsionisten protestak eta igaro berri zen greba feminista izan zituen hizpide, besteak beste.

Gauzak hala, baliteke datorren abuztuaren 12ko txupinazoan irakurriko duena ez izatea parradarako prest dauden herritarrek espero duten pregoia. Hori bai, ziurtzat eman daiteke oso hitzaldi interesgarria izango dela.

EGITARAUA

08.11 LARUNBATA

Lucas Reyko pistan kokatuko diren barraketan prezio bereziak jarriko dituzte: 1 euro / bidaia

9:00 // "Jose Luis Sasiain"-en oroimenezko II. Ehiza laneko txakur lehiaketa
KORTABARRIAREN LANDETAN

12:00 // Paella txapelketa
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
PARKEAN

14:30 // Paella bazkaria
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
PARKEAN

16:30 // Gotzon Landeta XIV. Mus Txapelketa
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
TXOKOGORRIN

17:00 // Kontzertua:
ILARGIAK
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
PARKEAN

18:30 // Txupinazoa eta pregoi herrikoiaren irakurketa
Hiru hautagai egongo dira pregoilari izateko: Otsemeak talde feminista, Burubio kultur elkartea eta Amurrio Trail Taldea
PARKEAN

ELEKTROHOB
INSTALAZIOA - KONPONKETA - MANTENUA
• BANAKAKO ANTENAK
• ANTENA KOLEKTIBOAK
• ANTENA PARABOLIKOAK
• BIDEO ATARIAK
• BIDEO-ATEZAINAK
• DOMOTIKA
tdt
Etxegoien bidea, 1 · Tel. - Fax. 945 89 13 46 · AMURRIO
correo@elektrohob.com · www.elektrohob.com

ARTIKULUA

HAINBAT EKIMEN ETA TRESNA JARRIKO DITUZTE ABIAN JAIETAKO ERASO MATXISTEN AURKA

Planteamendu indartsua osatu dute Otsemeakeko kideek aurtengo jaietarako. Eraso matxistei aurre egitera bideratuko dute talde feminista horren planteamendu gehiena. Festen lehen egunetik egongo dira lanean. Mobilizazioa egingo dute abuztuaren 12an, gaueko hamabietan, "autodefentsa feminista eta jaietan emakumeen presentzia aldarrikatzeko". Horrez gain, protokoloa jarriko dute martxan, hirugarren urtez jarraian. Eskualdeko telefonoa erabiliko dute salaketa tresna gisa: 688 745 180. Otxomaioetan erabili zen telefono-zenbaki hori lehenbiziko aldiz, eta eskualdeko beste hainbat festetan ere egongo da funtzionamenduan, egunetako 24 ordutan salaketak jasotzeko prest. "Eskualdeko gainontzeko talde feministetako kideen laguntza izango dugu telefono txandak egiteko", azaldu dute Otsemeakeko kideek. Aurrelanketa ere egin nahi dute. "Hainbat bitarteko egongo dira salaketa telefonoa zabaltzeko, baina baita eraso baten aurrean zelan jokatu azaltzeko ere . Lanketa berezia egin nahi dugu koadrilekin, besteak beste", adierazi dute.

Hala ere, nabarmendu dutenez, ez dute euren jarduna txosnagunera mugatuko. "Herriko tabernekin ere lanketa egin nahi dugu, erasoak zelan identifikatu eta horien aurrean zelan jokatu erakusteko irizpide orokor batzuk jarriz", zehaztu dute.

Udalaren planteamendura

Amurrioko Udalak ere hainbat ekintza egingo ditu jaietan, indarkeria matxista "identifikatu, prebenitu eta banakako eta taldeko erantzunak egituratzeko". "Beldur barik gunea" atonduko dute horretarako abuztuaren 12 eta 14an, Larrinaga kaleko oinezkoen gunean.

Gehituren kanpaina ere zabalduko dute jaietako egun guztietan, preserbatiboaren erabilera sustatzeko. Erasoen aurrako *Lagunekin baratzean* txotxongilo tailerra ere eskainiko dute. "Hainbat gai landuko dira bertan, kultur aniztasuna, desberdinak diren pertsonekiko errespetua, gatazken ebazpena eta taldearen presioa edo berdintasuna, beste batzuen artean".

b berriak
supermerkatuak

ETXEZ ETXEKO BANAKETA

Zumalakarregi etorbidea, 12-behea
946 726 417
LAUDIO

Intxardui, 2A-2B
945 066 355
AMURRIO

19:00 // IV. Jose Negrete Trofeoa
3. mailako Amurrio Kluba–2.B mailako S.D. Amorebieta
BASARTEKO ZELAIAN

19:30 // Poteo musikatua
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

22:00 // Profesionalen pilota partidak
Guerrero-Gareth / Iker-Ruben eta Urruti-Larumbe / Bengoetxea-Imaz
UDAL PILOTALEKUAN

22:00 // Kontzertuak:
BARAU
ZARTAKO-K
MOONSHINE WAGON
DANTZETAN JARRAI
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
TXOSNAGUNEAN

22:30 // Kontzertua:
LOS BLUE YEYÉS
60. hamarkadako pop rockaren tributua
JUAN URRUTIA PLAZAN

08.12 IGANDEA
TXUPINAZO EGUNA

11:00 // Plater tiroketa, egun osoan
LARRABEKO TIRO ZELAIAN

11:30 // "Amurrio hiribildua" pilota txapelketako finalerdiak
UDAL PILOTALEKUAN

11:30 // Sakatu elektrotxaranga, kuadrillek antolatuta

12:30 // Kuadrillen aurkezpena
JUAN URRUTIA PLAZAN

14:30 // "Herriarenak 40 urte" bazkari herrikoia
ELEXONDO PASEALEKUAN

16:30 // "Herriarenak 40 urte" argazki erakusketa
TXOKOGORRIN

18:15 // Jaietako pregoiaren irakurketa
UDALETXEKO ARETOAN

18:30 // Jai koadrilen igoera
Urrutia Jauregiko Landatik Juan Urrutia plazara

18:40 // Jaietako Koadrilen ordezkarien aurkezpena
UDALETXEKO ARETOAN

19:00 // Txupinazoa eta Iguarrakoaren jaitsiera
JUAN URRUTIA PLAZAN

19:00 // Kale animazioa, Amurrioko Txistuzaleak taldearen eskutik
JUAN URRUTIA PLAZATIK

ZURE TEILATURAKO GUZTIA
Eraikuntza konponbideak eta sistema termikoak

AR
ARATEI, S.L.

Teilen instalatzaile eta banatzaileak

S.A.T.E. banatzaile eta aplikatzailea
PROPAMSA

Leihoen instalatzaile eta banatzailea
Grupo Aluman

Adituak teilatu eta fatxadetan
Hondeaketak eta eraisketak
Forjak eta zurezko estrukturak
Aldamioen alogera eta muntaia
Teilatu-hodiak eta zorrotenak
Komunitateentzako I.E.E.ak

Zankueta poligonoa PAB-1
(Larrinbe) AMURRIO

Garai etorbidea, 19
ARTZINIEGA

TEL. 902 99 67 12
aratei@aratei.com
www.aratei.com

EGITARAUA

19:00-21:00 // Indarkeria sexistarik gabeko gunea
Euskal Herriko Bilgune Feministaren eskutik
LARRINAGA KALEAN

22:00 // Orkestra:
KOSMOS
LARRINAGA KALEKO OINEZKOEN GUNEAN

23:00 // Kontzertuak:
OHARKABE
GORA ETORRI
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
TXOSNAGUNEAN

Anboto

3:00 // Patinete prekarioen lasterketa
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
TXOSNAGUNETIK

08.13 ASTELEHENA
HAURREN EGUNA ETA ATZOKO GAZTEEN EGUNA

Oharra: euria eginez gero, haurrentzako ekintzak, parkea, bazkaria eta jolasak Matias Landaburura eramango dira

10:00-15:00 // Amurrioko haurren txupeteak udaletxeko ate nagusian jasoko dira eta Iguarrakoak abuztuaren 17an eramango ditu

Instituto Médico Veterinario de Álava
VETER | SALUD
Txertoak | Kontsultak
Prebentzio-medikuntza
Kirurgiak | Ospitalizazioa
Etxez etxeko bisitak
Maskuribai poligonoa Z9 - Z11
01470 Amurrio (Araba)
Tel.: 945 028 910 - 945 393 477
Larrialdiak: 656 788 800
www.imva.es

ARTIKULUA

SOINU BANDA PROPIOA KONPOSATU DU **TXABOLAKOAK KOADRILAK**

Iaz sortu zen Txabolakoak jai-koadrila. 13-21 urte bitarteko 55 kide inguru ditu taldeak, eta nahiko aktibo aritu ziren iaz. "Jaiak animatzea, zarata ateratzea eta herriko festak berpiztea" izan zen euren buruari jarri zioten helburua. Aurten, baina, proiektu berri bat abiatu eta gauzatu dute: koadrilaren abestia konposatu eta grabatzea.

Uztailaren 24an plazaratu zuten abestiaren bideoklipa. Burubio Kultur Elkartean grabatu dute kanta, Amurrioko Musika Eskolako kideekin elkarlanean. Aitor de Juan, Paula Barcelo, Julen Sasiain, Alberto Perales, Ana Rojo, Lucia Iturbe, Julene Sanchez, Galder Albizua eta Oscar Guineak hartu dute parte grabaketan. Ska doinu dantzagarriz hornitutako abestia plazaratu dute, aurtengo jaietako soinu bandaren parte izateko.

INSTALACIONES RAGA IBARRONDO
ITURGINTZA BEROKUNTZA GAS AIRE GIROTUA
Denda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55
José Madinabeitia, 1
Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

10:30 // Amurrioko harrera familietan daudenei harrera
UDALETXEAN

11:00-14:00 // Haur parkea
PARKEAN

11:00 // Alkateak udaletxeko pleno aretoan hiribilduko pertsonarik helduenari makila emango dio. Jarraian, trikitilariez lagunduta elizara abiatuko dira

11:30 // Nagusiei zuzendutako meza, Mariaka abesbatzarekin Jarraian, udalbatzak "San Anton Armuru" egoitza bisitatuko du
ANDRA MARIAREN PARROKIAN

12:00 // Buruhandien kalejira

12:30 // Adinekoentzako janaurrekoa eta musika animazioa
JUAN URRUTIA PLAZAN

14:00 // Atzoko Gazteentzako anaitasun bazkaria
UDAL PILOTALEKUAN

14:00 // Haurrentzako bazkaria Aurreraka eta Amurrioko Eskaut taldeen laguntzarekin
PARKEAN

14:30 // Gazte bazkaria
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
GAZTE KARPAN

16:00 // Dantzaldia Ekhy taldearekin
FRONTOI KALEAN

16:30 // Kontzertu akustikoa:
ARRAKALA
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
GAZTE KARPAN

15:00-17:00 // Jolas tradizionalak eta aurpegia margotzeko tailerra
PARKEAN

17:00-18:00 // Haurrentzako antzerkia:
"LAGUNEKIN BARATZEAN"
PARKEAN

17:30 // Haima eta kultura saharararrekin lotutako ekintzak
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
PARKEAN

18:30 // Txiki zunba
Tania Neiraren eskutik
SAN ANTON PLAZAN

19:00 // Parkour erakustaldia, 11 urtetik gorako gazteentzat
URRUTIA JAUREGIKO LANDAN

EGITARAUA

19:30 // Buruhandien kalejira

20:00 // Elikadurari buruzko tailerrak: “pizza faltsuak” eta koktelak
11 urtetik gorako gazteentzat
URRUTIA JAUREGIKO LANDAN

20:00 // Kale-kontzertuak herritik:
OSTABE
ASTARTE
MOON ETA SPUNKNIK
BARRE IKARA
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

20:30 // Parkour tailerra
11 urtetik gorako gazteentzat
URRUTIA JAUREGIKO LANDAN

22:45 // Kontzertuak:
MERIDIAN
DOCTOR DESEO
JUAN URRUTIA PLAZAN

23:00 // Musika emanaldia:
POTTORS DESTROYERS
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
GAZTE KARPAN

URAGORRI S.L
ITURGINTZA - BEROKUNTZA - GAS

Dionisio Aldama 3, 14.lokala
01470 Amurrio
adm.uragorri@gmail.com

Tel: 945 041 395
671 624 250
654 056 953

08.14 ASTEARTEA
KOADRILEN EGUNA

9:30 // IX. Marmitako Lehiaketa
Amurrioko Su-gozotan gastronomia elkarteak antolatutako ekintza
JUAN URRUTIA PLAZAN

10:00 // Baserriko produktuen erakusketa eta lehiaketa
JUAN URRUTIA PLAZAN

11:00-14:00 // Haur parkea
PARKEAN

11:30 // “Amurrio hiribildua” pilota txapelketako finalak
UDAL PILOTALEKUA

12:30 // Musika animazioa trikitixarekin
Ander eta Lander bikotearekin

13:00 // Trikipoteoa koadrilekin
KIOSKO ALBOTIK

13:00 // Marmitako Lehiaketako kazolen aurkezpena
JUAN URRUTIA PLAZAN

13:00 // Ziza dastatzea
Arriola Mikologia Elkartearen eskutik
JUAN URRUTIA PLAZAN

14:00 // Marmitako eta baserriko produktuen lehiaketetako sari banaketak
JUAN URRUTIA PLAZAN

15:00 // Koadrilen bazkaria
PARKEAN

17:30-19:30 // Koadrilen jolasak
PARKEAN

19:30 // Lore eskaintza Jasokundeko Andra Mariari, Amurrioko zaindariari
ANDRA MARIAREN PARROKIAN

20:00 // Odoloste-jana
1,5 euro ogitarteko bakoitza
SAN ANTON PLAZAN

20:00 // Kale-antzerkia:
"EL DESAHUCIO"
DIONISIO ALDAMA KALEKO 1EAN DAGOEN PLAZATXOAN

21:00 // Kalejira Aldats elektrotxarangarekin
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

21:00-23:00 // II. DJ Gaua
Bak Produkzioen eskutik
LARRINAGA KALEKO OINEZKOEN GUNEAN

21:00-24:00 // Indarkeria sexistarik gabeko gunea
Euskal Herriko Bilgune Feministaren eskutik
LARRINAGA KALEAN

23:00 // Kontzertuak:
DEUS EZ GLAUKOMA
JUAN URRUTIA PLAZAN

Wikipedia

00:30 // Alkohol-tasa neurtzeko kanpaina
LARRINAGA KALEAN

1:00 // Kontzertuak:
LMK + AIARALDEKO SOINU SISTEMA & LAGUNAK
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
TXOSNAGUNEAN

2:00 // II. DJ Gaua
Musika, lehiaketa eta opariak Larrinagako oinezkoen gunean
LARRINAGA KALEKO OINEZKOEN GUNEAN

08.15 ASTEAZKENA
AMA BIRJINAREN EGUNA

10:00 // Kanpai iraulketa eta suziriak botako dira jaia iragartzeko

10:00 // Txirrindularitza lasterketak
Txirrindularitza Sari Nagusia, LXV. Aiara zirkuitua, Elite eta Sub23 mailak, Arabako Txapelketa eta "Daniel Albizuaren omenezko lasterketa"

10:30 // Dianak, trikitiekin

10:45 // Udalbatza, Mariaka eta Marigabon erraldoi bikotea, gaiteroak eta trikitilariak Andra Mariaren Elizara abiatuko dira

11:00 // Meza nagusia, irteeran ohorezko aurreskua
ANDRA MARIREN PARROKIAN

KOADRILA

HERRIARENAK, LAU HAMARKADA MARTXA ETA BORROKA UZTARTZEN

Urte gorabeheratsua izan zen Herriarenak koadrila jaio zenekoa: 1978a, Franko diktadorearen heriotza eta geroko trantsizio deituriko prozesuaren arteko garai hoiek protesta eta aldarrikapen sozial ugariren agertoki izan ziren Euskal Herrian. Herri eta hirietako jaietan ere isla izan zuen bor-bor zegoen mugimendu sozial horrek. Urte hartako San Ferminak, esaterako, egoera politiko zurrunbilotsuaren adibide izan ziren, bertan poliziak German Rodriguez gaztea hil zuen preso politikoen aldeko manifestazio bat erreprimitzerakoan, beste ehunka zauritu utziz.

Frankismotik zetorren jai eredu baten arrastoak ere agerian zeuden: jai tradizionalak eta atzerakoiak ziren, orduko gizartearen aldarrikapen eta bizi ereduarekin dagoeneko bat ez zetozenak. Bi ereduen arteko talka horretan kokatzen dute Herriarenak jai-koadrilako kideek beraien sorrera, "abertzaletasunaren familiaren alde aurrerakoienak hedapen soziala eta kulturala egiteko zuen beharraz bultzatuta sortu zen gure taldea".

Hala, folkloreari estu lotutako jai batzuetan gaurkotasuna zuten gaiak lantzen hasi zen Herriarenak: korrika, euskara, Lemoiz, errepresioa, ingurumena... "Jaiak bai borroka ere bai leloaren egikaritzean lagunduz". 70eko eta 80ko hamarkadan pisu handia izan zuten Amurrioko Koadrilek eta Herriarenak talde sortu berrira jende asko hurbildu zen lehenengo momentutik, "Jaiez disfrutatzeko jai koadrila batekoa izan behar zenuen. Hori aldatzen joan da urteak aurrera joan ahala", adierazi dute Herriarenak-eko kideek.

90eko hamarkadan krisi izan zuen eragileak eta oso kide gutxirekin geratu zen, "hamarkada horretan ez zen apenas ekimenik antolatu. Gurdiak ere ez genituen atera".

Baina gaur egun indartsu da berriz jai-koadrila aldarrikatzaile hau. 60 kide inguruk parte hartzen dute modu aktiboan eta beste herritar askok eta askok taldearen mahoia, gorria eta zuria janzten dute jai-giroaz disfrutatzeko. Herriarenak-eko kideek jai-Herrikoien aldeko batzordean parte hartzen dute, hiru ekintza nagusi antolatuz: Gotzon Landetaren omenezko mus txapelketa, txapela jaurtiketa eta "Basati Kirol" arrakastatsuak. "Horrez

gain, jaietako egitarauan dauden ekintza gehienetan parte hartzen dugu era aktibo batean, hala nola: paella txapelketan, koadrilen eguneko ekintzetan, kalejiretan...".

Asanbladen bidez antolatzen dira. Herriarenak-ek antolatuko dituen ekintzak erabakitzeko bilera deitu eta lana guztien artean banatzen dute. "Ardurak banatzerako orduan saiatzen gara orekatuki egiten, gutxi batzuek dena egin ordez, guztiok ardura txiki bat hartzeko konpromisoa hartzen dugu", nabarmendu dute.

90eko hamarkadan krisi bat bizi izan zuen koadrilak, baina gaur egun indartsu dago berriz

Asko aldatu dira Amurrioko Jaiak 40 urtetan, koadrilako kideen hitzetan: "frankismotik eratorritako eredu baten moldaketa eman da lau hamarkada hauetan, arrasto gehienak gainditu ditugu. Emakumearen funtzioa ere aldatu egin da. Erregina eta damaren kontzeptuak gainditu dira, nahiz eta koadrilaren batek oraindik ere berdinetan jarraitzen duen". Txarrera jo duela uste dutenek, ordea, koadrilako kideen eta jai ereduaren agorpenaren aurrean irudimen faltaz ohartarazi dute. "Jaien intentsitatea jaitsi da, ekimenen arrakasta gero eta eskasagoa da".

Aldarrikapena izan dute Herriarenakeko kideek koadrilaren izaeraren ikur urte hauetan guztietan eta egindako lanari esker jaia eta aldarria estuago lotu dira: "jaiak herritik eta herriarentzat antolatu behar direnaren aldarrikapenak aztarna utzi du. Jendea egunetik egunera kontzienteagoa da. Jaiak aldarrikapen eta borrokarako eremuak direla uste dugu, ezin dugulako aktualitatea baztertu eta beste alde batera begiratu: etxetik urrun dauden herriko presoak eta deportatuak, gatazka sozial eta politikoak, gazte eta emakumeon problematika berezituak, ingurumena, euskara...".

40 urtez aurrera begira

Lau hamarkadatako ibilbide luze eta emankorra ospatuko dute aurtengo jaietan. Abuztuaren 12an egingo dute ospakizuna, herri-bazkari bat antolatuko dute urte hauetan guztietan koadrilako kide izan diren guztiekin. Horrez gain, argazki bilduma bat osatuko dute, taldearen historia irudien bidez kontatuz.

Atzera begira bakarrik ez, etorkizunari so ere jarri da taldea eta hainbat erronka jarri dizkio bere buruari: "Eraberritzea. Jende berria eta gaztea taldean sartzea, urtero egiten diren ekintzen formatua aldatzea edo gauza berriak sortzea, aldarrikatzea eta kontzientziak astintzea".

EGITARAUA

12:30 // Kalejira Amurrioko erraldoi eta buruhandiekin

12:30 // Agintariei eta jaietako partaideei harrera ekitaldia
UDALETXEAN

12:30 // "Rock and Brass" musika giroa
BRAzzTET MV Brass Bandarekin
LARRINAGAKO KALEAN ETA ERDIGUNEKO KALEETAN

12:30 // Herri kirolak
Aizkolari lehiaketa Luis Polanco "Salduena" eta Jokin Alkizaleteren artean. 5 metroko altueran enborra aizkoraz mozteko erakustaldia eta harri eta ingude altxaketak Leitzako Josetxo Urrutiarekin
JUAN URRUTIA PLAZAN

13:30 // Txirrindulari lasterketako sari nagusiaren banaketa

19:00 // Chok Dee Gym erakustaldia
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
PARKEAN

19:30 // Euskal dantzen erakustaldia
Aiara dantza taldearekin
JUAN URRUTIA PLAZAN

20:30 // Bertso-saioa txosnagunean: Aitor Servier, Maialen Akizu, Jone Uria eta Iñaki Vinaspre
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
PARKEAN

22:00 // Kontzertua:
SABIN
JUAN URRUTIA PLAZAN

22:00 // Txakola gaua:
MUGALARI
ZOROEN KLUBA
AKERJENBE SOUND
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
TXOSNAGUNEAN

23:30 // Folk kontzertua:
KORRONTZI +
AIARA DANTZA TALDEA
JUAN URRUTIA PLAZAN

08.16 OSTEGUNA
SAN ROKE EGUNA

8:30–15:00 // San Rokeko zelaietara joan eta etortzeko doako autobusa
Gasolindegitik autobusa ordu erdiro irtengo da. Geralekuak: elizako biribilgunea eta San Jose eliza. San Roketik azken irteera 14:30ean izango da

10:00 // Santuaren igoera
San Rokeren baselizaraino Santa Vera Cruz Kofradiak antolatuta
ANDRA MARIAREN ELIZATIK

10:30 // Ganadu erakusketa
San Rokeren azoka 2018

11:00 // Musika animazioa trikitixarekin
SAN ROKEKO ZELAIETAN

11:30-14:30 // Natura 2000 Sareko hurbileko magia
SAN ROKEKO ZELAIETAN

11:30 // Meza nagusia, Mariaka abesbatzarekin
SAN ROKEKO ZELAIETAN

12:30 // Aurresku eta Joten LIII. Txapelketa
Aiara Dantza Taldearen eskutik
SAN ROKEKO ZELAIETAN

13:00 // Txekor pisaketa eta kinielak
SAN ROKEKO ZELAIETAN

18:00-21:00 // Tiragoma lehiaketa
Bizkaiko Tiragoma Elkarteak antolatutako ekintza. Izen-emateak: 17:30etatik 18:30era. Euria eginez gero, San Anton plazara lekualdatuko da
FRONTOI KALEAN

20:00 // Funbox factory ikuskizuna
URRUTIA JAUREGIKO LANDAN

Raul Olaya

Aialur
Ingeniería de montes, topografía y medio ambiente
Tel. 945 89 02 56 Fax. 945 89 23 24
> Obrazko topografia
> Lur-sailetako neurketak
> Mugarriztatze eta mugaketak
> Ingurune inpaktuen ebaluazioak
> Ingurune proiektuak
> Baso jasangarrientzako planak
> Proiektu eta aktibitate lizentziak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan
> Pinudien tasazioa
> Balorazio eta tasazioak
Maskuribai Industrialdea, Pab. B-10 01470 AMURRIO (Araba) aialur@aialur.com

Estibaliz Aldama arkitektoa
- Proyectos; obra nueva, rehabilitaciones, legalizaciones, ascensores...
- Licencias de actividad
- Diseño y reformas de interiores
- Gestión de gremios
- Eliminación de barreras arquitectónicas
- Certificados Energéticos
- ITEs...
El Refor, Módulo 8, 01470 Amurrio
ealdamarquitecta@gmail.com · 605 75 62 62 · 945 06 65 08

21:00 // Antzerkia:
"NAUFRAGOS"
LARRINAGA KALEKO OINEZKOEN GUNEAN

22:15 // Karroza desfilea
ELIZATIK ALDAI KALERAINO

1:30 // Karroza lehiaketaren sari banaketa
Berbena eta DJ Rubaren emanaldia egongo dira jarraian
JUAN URRUTIA PLAZAN

08.17 OSTIRALA SAN ROKEREN ERREPIKAPENA

9:00 // XLII. Pil-pil erako bakailao eta XIX. Patata-tortilla lehiaketarako izen-ematea
SAN ROKEKO ZELAIAN

10:00-15:30 eta 17:00-19:30 // San Rokeko zelaietara joan eta etortzeko doako autobusa
Gasolindegitik autobusa ordu erdiro irtengo da. Geralekuak elizako biribilgunean eta San Jose elizan egongo dira

11:30 // Meza nagusia, Mariaka abesbatzarekin
SAN ROKEKO ZELAIAN

12:30 // Ardiei era tradizionalean ilea mozteko erakustaldia

12:30 // Patata-tortillen aurkezpena

13:00 // Bakailao lehiaketako kazolen aurkezpena

14:30 // Gastronomia lehiaketako sari banaketa

14:30 // Anaitasun bazkaria
Bazkariaren prezioa: 1,5 euro

ERREZETA

PATATA TORTILLA

IMANOL ARBERAS MENDIBIL

Sanrokeen errepikapeneko tortilla lehiaketaren iazko irabazlea

Osagaiak:

· Tipula gorria (batzuetan zuriarekin egiten dut, baina gorria dut nahiago)
· Gatza
· Patatak (ahal bada kennebec motatakoak eta lehorreko laboreetan hazitakoak)
· Arrautzak (etxekoak edo ekologikoak badira hobeto)
· Oliba olioa

Prestaketa:

1) Patata mozterako orduan, nik ez ditut karratuak egiten, zati lauak baizik, horrela gustatzen zait. Ez da apurtu behar, xerratan moztu baizik.

2) Patata frijitzen dut jarraian. Hasieran sua gogor jartzen dut, eta jaitsi egiten dut gero. Prozesu guztia patataren aurrean egotea da garrantzitsuena, bueltak ematen, despistatu gabe. Helburua ez da patata frijitua egitea, patata-tortila egiteko patata izatea baizik.

3) Patata zartaginetik atera eta arrautz irabiatuekin nahasten dut gero. Sardexka sartzen dut nahasketan. Sardexka erraz mugitu ahal baldin badut nahasketan patata gutxi dagoenaren seinalea izango da, eta alderantziz. Oreka bilatu behar da. Gogor geratu behar da, baina ez asko.

4) Tortilla egiteko ia ez dut oliorik erabiltzen, oso-oso gutxi botatzen dut, eta sua gogor jartzen dut. Minutu erdi izaten dut horrela, eta sua jaisten dut gero. Buelta ugari ematen dizkiot tortillari, lauzpabost inguru, testura egokia topatu arte.

5) Buelta ematerakoan sua gogor jartzen dut, eta tenperatura jaisten dut gero berriz. Modu horretan lortzen dut tortillak urre kolorea hartzea.

6) Atzamarrarekin frogatzen dut ehundura. Gutxi egindako tortilla gustatzen zait niri.

16:00 // Erromeria "Orots" taldearekin

19:30 // "Herriarenak 40 urte" argazki erakusketa
Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
TXOSNAGUNEAN

20:00 // Dantza ikuskizuna:
"BARROCK"
Dantzaz konpainiaren ikuskizuna
JUAN URRUTIA PLAZAN

21:45 // Dantza-plaza Aiko taldearekin
JUAN URRUTIA PLAZAN

22:30 // Musika animazioa Betijai fanfarrearekin

22:30 // Iguarrakoaren agur-desfilea
Andra Mariren elizatik abiatuko da desfilea Juan Urrutia plazan amaitzeko. Auzokideei beltzez jantzita bertaratzeko gonbita luzatu die udalak

00:00 // Jaien amaiera
Bengalak banatu eta bateria piroteknikoak piztuko dira

mundiSalud
Clínica Dental

Zure irribarrearen zerbitzura lanean

· Neurrirako finantzaketa
· Kolektibo handiekin adostuta

ADITUAK
· Odontologia orokorra
· Kirurgia
· Ortodontzia
· Estetika
· Plasma
· PADI
· Inplanteak

BERRIKUNTZAK
· 3D Erradiologia
· Ortodontzia ikusezina

AMURRIO ETA LAUDIOKO AIALA MEDIKU-ZENTRO BARRUAN GAUDE

Amurrio
Iritxusi 4-6
945891469

Laudio
Zumalakarregi 3, behea
www.clinicadentalmundisalud.com 946721927

www.aiaraldea.eus

JAIETAKO WEBGUNEA ABIAN!

WEBGUNE BEREZIA ATONDU DUGU AIARALDEA.EUS ATARIAN AMURRIOKO JAIEI BEGIRA. BERTAN TOPATU DAITEKE FESTEN NONDIK NORAKOEN INFORMAZIO GUZTIA. ARGAZKIAK, BIDEOAK... EGUNERATZEN JOANGO GARA JAI-EGUNEK AURRERA EGIN AHALA

Jaien jarraipen berezia

Aurtengo Amurrioko jaien jarraipen berezia egingo du Aiaraldea hedabideak. Ekintza esanguratsuenen zuzeneko jarraipena egingo dugu, Aiaraldea.eus webgunean eta sare sozialen bidez.

Horrez gain, argazki eta bideo bidez emango dugu festen berri, eta bideo-erreportaje berezia atonduko dugu bildutako irudi guztiekin.

Atzera begira

Azken hamarkadetako festen bilakaera ikusi nahi? Amurrioko jaietako argazki zaharren bilduma plazaratu dugu webgune berezian, dozenaka irudirekin.

adigrafik
Tel. 945 89 08 46 | adi@adigrafik.com
www.adigrafik.com
Maskuribai Ind. Z-10 | 01470 AMURRIO (Araba)

Diseinu grafikoa | Irudi korporatiboa | Web disenua
Errotulazioa | Dekorazioa | Merchandising

BARANBIOKO JAIAK

09.07 OSTIRALA

17:00 // Briska lehiaketa

18:00 // Mus lehiaketa

18:30 // Txupinazoa

20:00 // Odoloste-jana
Prezioa: 1 euro

21:00 // Erromeria

09.08 LARUNBATA

11:00 // Arrainezko paella txapelketa

12:00 // Meza
GARRASTATXUKO BASELIZAN

14:00 // Paellen aurkezpena

14:30 // Paella lehiaketako sarien ematea

21:00 // Patxi Perez
HERRIKO PLAZAN

23:00 // DJ Ruba

09.09 IGANDEA

12:00 // Meza
GARRASTATXUKO BASELIZAN

14:00 // Erreturatuen bazkaria
GARRASTATXUKO TXOSNAN

16:00 // Trikitrixa

17:30 // Umeentzako uretako jolasak

19:00 // Txokolate jana

09.10 ASTELEHENA

12:00 // Meza
BARANBION

LARRABEKO JAIAK

08.24 OSTIRALA

10:00 // Txupinazoa

11:30 // Meza
HERRIKO KAPERAN

12:00 // Umeentzako puzgarriak

12:00 // Patata tortilla txapelketa
Ezinbestekoa izango da zelaian egitea
SARIAK:
1. - 40 euro eta trofeoa
2. - 30 euro eta euskal pastela
3. - 20 euro eta euskal pastela

13:30 // Sari banaketa, tortillen aurkezpena eta tarta baten zozketa

16:00 // Umeentzako puzgarriak

16:30 // Umeentzako jolasak

18:00 // Igel joko txapelketa
Izen-ematea 1 euro

18:00 // Txokolatada
Umeek dohainik, helduek 0'20 zentimo ordaindu beharko dute

18:30 // Zunba

20:00 // Herri afaria

21:15 // Bocabeats comedia

22:45 // Kontzertua:
JUMAS BAND
Jarraian karaokea

ALORIAKO JAIAK

08.29 ASTEAZKENA

07:30 // Suziria

12:00 // Meza

13:00 // Euskal Dantzak

15:00 // Herri bazkaria

16:30 // Alboradak

17:00 // Mus txapelketa
1. Saria: 300 euro
2. Saria: 200 euro
3. Saria: 90 euro
4. Saria: 60 euro

18:00 // Haur jolasak

23:30 // DJ Juanma

3:00 // Mila kantzontzilotan

08.30 OSTEGUNA

7:30 // Suziria

13:00 // Meza

15:00 // Herri bazkaria

18:00 // Puzgarriak, zezen mekanikoa eta apar festa

21:00 // Parrillada

21:30 // Disko Jaia Mark Markosekin

5:00 // Jaien bukaera

LEKAMAÑAKO JAIAK

09.29 eta 09.30

Iraileko azken asteburuan ospatuko dira Lekamañako jaiak. Antolatzaileek ez dute oraindik zehaztu zein izango den egitaraua. Baina, aurreratu dutenez, ohiko ekintzak izango dituzte ardatz.

Odoloste-jana, berbena, umeentzako jokoak, tortilla txapelketa eta txokolatada egongo dira, besteak beste.

HOTEL ORDUÑA PLAZA

****
Balneario

HOTELA · JATETXEA · BAINUETXEA
GIMNASIOA · EKITALDIEN ANTOLAKETA

ZURE EZKONTZA GUREKIN

- **Aretoaren edukiera: 300 pertsona**
- **Kanpoaldeko patioa**
- **Ostatua gonbidatuentzako**
- **Doako autobusa gonbidatuentzako**
- **Menuak 88 eurotik aurrera**

ENPRESA EKITALDIAK

- **Bilera-gela pribatuak:**
  6 areto, 300 lagunentzat tokia.
- **Coffee break**
- **Ostatua**
- **Argi naturala**
- **Puntako garapen teknologikoa**
- **ENPRESENTZAKO EGUNEKO MENUA**

Foru plaza, URDUÑA · Tel. **945 56 90 38**
www.hotelordunaplaza.com l info@hotelordunaplaza.com

-Mugikorrik soinean? Kutxabank aldean-.

- Mugikorraren bidez ordaindu
- Txartelak piztu eta itzali
- Bizumen bidez dirua bidali eta jaso
- Erosketak finantzatu
- Intereseko informazioa jaso
- Eguneroko kontuak kudeatu

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

LAUDIOKO JAIAK

ABUZTUAK 15, 16, 17, 22, 23, 24, 25, 26

Jaiak berdintasunean bizi!

JON IÑAKI URKIXO ORUETA

LAUDIOKO ALKATEA

Tik-tak, tik-tak, tik-tak,... denbora badoa. Badi-tugu sanrokeak ate joka. Ortzaldeari begira eguratsak eta giroak kontrakoaz konbentzitu nahi izan arren, udaren ekuadorean gara dagoeneko, eta gure udalerriko jai nagusiak ospatzeko eta gozatzeko tenorean gara. Ez dute sentsazio bera izango hilabeteak eta hilabeteak lanean daramatzaten pertsonek. Doazkiela beste ezer baino lehen, nire besarkadarik eta eskerrik beroenak sanrokeen prestakizunetan ibili diren zein jaietan lanean ibiliko diren pertsona eta kultura erakunde guztiei. Urtero bezala, era askotako eta gustu guztietarako hainbeste ikuskizun prestatu izan da. Normalean, antolatzeko ardura izaten dutenek, pertsona guztiengana heltzeko saiakera egin ohi dute. Jaiak, festak, ondo pasatzeko eta gozatzeko dira; bat ere zalantzarik ez. Baina norberak gozatzeaz gain, gainerakoek gozarazteko beta ere ematen digute. Izan dezagun honakoa uneoro kontuan, beraz.

Ez nuke amaitu nahi izango, edozein arrazoirengatik gurekin ez zaudeten laudioar eta inguruko guztiei zaudeten tokietan zaudetela, abuztuaren 15ean eguerdiko 12:00ak aldera Laudioko ardo apardunaz beteriko kopa altxatzeko eta topa egiteko gonbidapena egin gabe. Besarkada bana, ondo pasa eta disfrutatu berdintasunean gure sanrokeak!

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

PREGOILARIA

“Saria da pregoilari izatea gure 40. urteurrenean”

ITXARKUNDIAKO KOORDINATZAILEA DA AITZIBER TEMPRANO (Bilbo, 1971). 40 URTE BETE DITU DANTZA TALDEAK AURTEN, ETA SANROKEETAKO PREGOILARIA IZANGO DA.

Nola jaso duzue pregoilari izateko proposamena?

Guretzat saria izan da. Urte ugari talde moduan eta kulturan aritu ostean, hau saria da. Hasi gara pregoia prestatzen eta, gutxi gorabehera, ideia badaukagu. Baina, momentuz, ez dugu zehaztu. Taldeen artean landu dugu.

Zein da Itxarkundiaren egungo egoera?

Egun 160 dantzari gara eta ordubetez elkartzen gara astean behin. Adinaren arabera banatzen ditugu taldeak. Hasieratik 50 kide inguruko taldeak izan genituen urtero, baina aspaldi ume askok eman zuten izena eta talde bakoitza 70 dantzarik osatzera igaro ginen. Hortik aurrera, gero eta gehiago batu gara.

Haurrak izan dira gakoa. Amek ere erabaki zuten taldea egitea arin-arin eta fandangoa ikasteko, erromerietan dantzan aritzeko. Guztira, nik uste dut 1.000 lagunek baino gehiagok ikasi dutela Itxarkundia Dantza Taldean.

Urteurrenaren harira, hainbat ekintza antolatu duzue.

Bai, martxoan hasi ginen dantza plazekin; azarora arte, hilero, bigarren ostiralean egiten ditugu. Apirilean izan ziren ekitaldirik garrantzitsuenak: dantza plaza bereziak, Dantzari Eguna, dantza erakustaldia,

argazkien erakusketa... Laudioko Jaietan antolatuko ditugu fandango, arin-arin eta aurresku lehiaketak eta iraileko Euskal Jaia baliatuko dugu bazkaria egiteko. Azaroan Korrontzirekin kontzertu berezia eskainiko dugu. Horrez gain, abenduan urteroko emanaldia egingo dugu kiroldegian, baina berezia ere izango da, Salutxu Etxebarriak sortutako taldea omendu nahi dugu eta.

Zerk eramaten du jendea Itxarkundian izena ematera?

Txikien kasuan, nik hartzen ditut 3 urterekin eta ikastolan 5 urterekin, gurasoek erabakitzen dutenaren arabera. Helduen aldetik, nagusiak gero eta gehiago dira. Askok bere garaian nahi zuten ikasi, baina ezin izan zuten arduren ondorioz. Orain euren seme-alabak nagusiak direla, badaukate denbora eta aukera aprobetxatzen dute.

Zer dantza mota lantzen duzue zuek?

Euskal dantza tradizionalak urtero irakasten ditugu. Hori ez ezik, euskal dantzak musika garaikidearekin uztartzen hasi gara. Jendeak gogoko ditu eta zerbait berezia da. 7 urte bete ditugu kiroldegian klaseak ematen.

Urte horretan hasi nintzen horrelako dantzak nahasten eta konturatu nintzen, adibidez, gurasoek eskertzen dutela beti dantza berak ez ikustea. Urtero zerbait berria eskaintzen saiatzen gara.

Euskal dantzak edonork egin ditzake?

Bai, gogoak baino ez dira behar. Norberak bere psikomotrizitatea du. Batzuei besteei baino gehiago kostatuko zaie ikastea, baina dantzen sekretua behin eta berriro errepikatzea da. Psikomotrizitatearen arabera, batzuek hobeto edo okerrago egiten dute.

40. urteurrena beteta, zein da Itxarkundiaren hurrengo helburua?

Orain arte bezala jarraitzea. Uste dut egiten dugun lana bide onetik doala.

EGITARAUA

08.14 ASTEARTEA

19:00 // Pregoiaren irakurketa
Itxarkundia dantza taldeko kideek irakurriko dute aurtengo pregoia. Jarraian Arloteek Ruperto Urkijoren abestiak kantatuko dituzte
HERRIKO PLAZAN

08.15 ASTEAZKENA
TXUPINAZO EGUNA

8:30 // Aire zabaleko XXII Pintura Lehiaketa
Udalaren webgunean kontsultatu daitezke lehiaketaren oinarriak

10:00 // Herri gosaria
Baldarrak koadrilaren eskutik. Jatekoa eta edatekoa doan
BATZALARRIN KALEAN

11:00 // Kalejira
BATZALARRIN KALEAN

11:30 // Kuadrilla historikoen topaketa
Horren ostean, kalejira egongo da Adiskideak fanfarrearekin, Herriko plazaraino
ZUBIAUR KALEAN

12:00 // Txupinazoa
Gero kalejira egongo da herriko kaleetatik
HERRIKO PLAZAN

KOADRILA

AZIAK TALDEA **12 URTE AITZINDARIAK IZATEN**

1972tik 1984ra egon zen Aziak taldea funtzionatzen. **Aziak**

Aurtengo sanrokeen txupineroak Aziak taldeko kideak izango dira. Kuadrilla zaharren artean hautatu dituzte ospakizunei hasiera emateko. Euskal dantzak ikasi eta irakasteko sortu zen Aziak 1972an Ganekogorta Mendi Taldearen barruan eta bere jarduera 1984ra arte heldu zen.

Jende ugarik parte hartu zuen Aziaken sorreran; Santos Ibarretxek, Joseba Ugarrizak, Montxi Corbellak, Joseba Ibarrolak... eta gizonezko asko aritu baziren ere, herriko lehen dantza talde mistoa izan zen. Horrela, emakumezkoek ere partaidetza aktiboa izan zuten, eta kideen artean Amaia Mendieta, Idoia Urkijo edota Amaia Etxebarria egon ziren.

Auzoko jaietan abiatu zuen jarduera taldeak eta sanjoanetan dantza egin zuen. Gero hainbat herri bisitatu zituzten erakustaldiak egiteko; Urduña, Orozko, Zalla... Gainera, Euskal Herriko Dantzari Egunean egon ziren Baionan eta Gasteizen. Are gehiago, Arabako Dantzari Eguna eurek antolatu zuten Laudion behin. Edonola ere, euskal dantzak baino askoz gehiago sustatu zuten. Laudioko lehen euskal ezkontza, argazki eta ipuin lehiaketak, Niko Etxart eta Maite Idirinen kontzertua, camp berbena... antolatu zituzten herrian.

1972tik 1984ra bitartean herriko saltsa guztietan egon ziren Aziakeko kideak. Hori dela medio, eta aintzat hartuta diktadura frankistaren itzal luzea, polizia beti zegoen publikoaren artean. "Niko Etxart eta Maite Idirinen kontzertuan ikurrina agertu zen, eta oraindik ez zen legala", gogoratu du Santos Ibarretxek. Politikak bazuen bere garrantzia euren artean eta eztabaidak ohikoak omen ziren horren ondorioz. "Kide akpreso eta erbestean izan ditugu", gaineratu du Ibarretxek.

- Eramateko tortillak
- Errazioak: pernila, txorizo eta saltxitxoi iberikoak
- Gure ardo-sortaz gozatu

Erreserbatu
94 672 10 09 telefonoan
tortilla edota errazioak

Nerbioi kalea 3, Laudio

Hortik harago, Aziaken eragina Laudioko sanrokeetan nabarmena da. Berez, eurek egin zuten lehenengo aldiz Baserritar Eguna 1983an eta ospakizuna gaurdaino heldu da. Aipatzekoa da jaietan ez dela edonolako data eta jende andana ateratzen duela kalera.

Lehenengo urratsak Ganekogorta Mendi Taldearen egoitzan eman eta gero, Lamuza parkera jo zuten kideek, udalak lagatako lokalean. Han gero eta gazte gehiago elkartu ziren eta adin anitzeko taldeak osatu zituzten. Musikan ere eragina izan Aziakek, fanfarrea sortu baitzuten eta musikari ororri erosi zizkieten musika tresnak. Hori gutxi balitz, herriko beste bi talde garrantzitsuren abiapuntua izan zen; Untzueta Dantza Taldea sortu zutenek Aziak utzi zuten horretarako eta Patun kolektiboa ere Aziaken inguruan eratu zen. Patuneko kide gazteek bere lokala erabili zuten uholdeen ostean punk eta hardcore doinuak ekartzeko; Euskal Herritik (RIP, Cicatriz...) zein Europatik (Pandemonium, Lärm...).

Belaunaldi aldaketa egin ostean, Aziaken gainbehera uholdeen ondorioz gertatu zen. Urak lokala suntsitu zuen eta barruan zeuden material guztiak txikitu zituen: jantziak, musika tresnak... Kolpea gogorregia izan zen gainditzeko.

Aurtengo jaiak, ordea, aukera paregabea izango dira egindako guztia ospatzeko eta, Santos Ibarretxek aipatu duen moduan, "bidean geratu diren guztiak omentzeko: Josetxu Urkijo, Alberto Berrocal, Javi Campo, Manu Crespo, Fontso Isasi, Txema Pikaza... adibidez".

EGITARAUA

12:30 // Sorginlarrenen erraldoi eta buruhandien kalejira
Jarraian poteoa egongo da tabernaz taberna, fanfarre baten laguntzaz
HERRIKO PLAZATIK

12:30 // Ruperto Urkijori omenaldia eta Arloteen kantaldia
LAMUZA PLAZAN

12:30 // Diskofesta
ZUMALAKARREGI ETORBIDEAN

13:00 // Txosnagunearen irekiera
TXOSNAGUNEAN (ALDAI PLAZA)

14:00 // Kontzertua:
TXIMELETA
TXOSNAGUNEAN (ALDAI PLAZA)

ZUBIKO
GASTROTABERNA
LASTER IREKIERA
ZUBIKO KURAJO KALEA, LAUDIO
9:00ETATIK AURRERA EGUNERO ZABALIK
- Gosari bereziak
OSTIRAL, LARUNBAT eta IGANDEETAN 20:00ETATIK AURRERA
- Afari gozoak
Aukera beganoa, barazki-jalea, eta oso osasuntsuak!
Pintxoak - Erraziak - Entsaladak - Bokatak
Krepak - Zartaginekoak
OSTEGUNETAN PINTXOPOTEA
OSTIRALETAN EDARI DASTATZEAK

PASTELERíA
MAESTRO ELORZA, 5 LAUDIO - Tel. 946 720 539
Quintana
ONDO PASA JAIETAN!
Jaietan abuztuaren 24tik aurrera zabalik!

etxaurre
higiezinen agentzia
Ondo pasa jaietan!!
Zumalakarregi, 38
01400 • Laudio
94 672 85 50
BEZEROARENTZAKO ARRETA
Pisuak
Txaletak
Lokalak
Lursailak
Balioespenak

EGITARAUA

14:00 // Diskodantza
ALBERTO ACERON

14:00 // Ogitartekoak eta taloak salgai
ILUNTZE, ARRAÑOPE ETA EDERKI TABERNEN ALBOAN

14:00 // DJa Zubiko Kurajo kalean
Jarraian: Kalejira turutak jotzen, Iluntze, Arrañope eta Ederki tabernen inguruan

17:00 // Eski-taula txapelketa
Ñorrala koadrilak antolatutako lasterketa. Parte hartzeko unean bertan eman behar da izena
ZUMALAKARREGI ETORBIDEAN

17:00 // Txoripan jana
Zainzuriak koadrilak antolatutako dohako ekintza

EUSKO ENERGIA,S.L.
Iturgintza
Berokuntza
Gas
Aire girotua
Zoru erradiatzailea
Aerotermia
Energia berriztagarriak
Maskuribai poligonoa, Z-4
Amurrio
Tel. 945 890 825 / 627 400 739 / 615 780 263
www.euskoenergia.com

EGARRI
Txupinazo egunean KONBINATUAK 5€
Odoloste egunean 2. KONBINATUA 4€
946722747 egarri0921@gmail.com Ibaizaba kaleal, 1 LAUDIO

18:30 // Aire zabaleko XXII. Pintura Lehiaketako sari banaketa
HERRIKO PLAZAN

19:00 // Antzerkia:
"METRO Y MEDIO"
Maku Jarrak pailazo argentinarrak eskainitako ikuskizuna
HERRIKO PLAZAN

20:30 // Umeentzako ikuskizuna:
"IRRIAK PLAZAN"
Irrien Lagunak taldearen eskutik
ZUMALAKARREGIN

21:00 // Ikuskizuna, ondorengo taldeekin:
OREKA TX
ALOS QUARTET
AUKERAN DANTZAN
Ikuskizun bateratua eskainiko dute hiru taldeek. Alos Quartet taldeak jarriko du musika Oreka TX taldearen txalapartaren erritmora, Aukera Dantzan taldeko kideek dantzatzen duten bitartean
HERRIKO PLAZAN

22:30 // Erromeria:
AKERBELTZ
TXOSNAGUNEAN

JOSU ETA AINHOA
GARAYO SEGUROLA

JAIAK KOORDINAKUNDEA

Zuen beharra dugu

Laudioko Jaiak koordinakundeak urte asko daramatza herriko hainbat jai antolatzen. Asko izan dira gure batzarretatik pasatu diren belaunaldi eta taldeak. Koordinakundeak esfortzu handia egin zuen herriko jaiak herritarrek antolatu ahal izateko. Herri barnean jaiei gureak ditugun balore eta helburuak sustatzeko, norabide berdin batean.

Egun, jaien antolaketak duen garrantzia pixka bat ahaztu dela sumatzen dugu herrian. Jaiak eginda datozela asimilatu da, eta koordinakundearen lantaldean jende berri gutxi agertzen da. Honek kezka larria sortzen du guregan, jakin badakigulako jende berri eta gaztearen freskotasuna oso garrantzitsua dela horrelako ekintzak antolatzerako orduan.

Urteetan zehar oso herri parte hartzaile eta dinamikoa izan da gurea; eta horrek eman dio Laudioko jai giroari izan duen handitasuna. Baina jaien antolakuntzarik gabe, ez litzateke posible giro hori sortzea. Gaur egun jaiak gauez bizitzeko ohitura zabaldu da belaunaldi berrien artean, egunean egiten diren ekintzak ahaztuta.

Bestalde, Jaiak koordinakundea hainbat koadrila eta taldek osatzen dugula gogoratu nahiko genuke. Gauzak hala, edonork parte hartu dezake herriko jaiak antolatzeko proiektu honetan. Horregatik, Jai koordinakundeak antolatzen dituen asanbladetan parte hartzeko gonbita luzatzea gustatuko litzaiguke. Animatzen den orok koordinakundeko partaide bati komentatu edo hurrengo emailera idaztea besterik ez du egin behar: jaiakoordinakundea@gmail.com. Zuen beharra dugu!

EGITARAUA

08.16 OSTEGUNA
SAN ROKE EGUNA

8:00 // Alborada arloteekin

9:00 // Kalejira
Lankaietako Lagunak eta Ekin Joleak txistulari taldeekin

11:00 // Diana auzoetatik
Laudioko Gaiteroen eskutik. Horren ostean, kalejira erdigunean zehar

11:00 // Hasiberrientzako entzierroa

12:00 // Meza
San Roke zaindariaren omenez
DONE PETRI PARROKIAN

11:00 // Familiagunea
TXOSNAGUNEAN

11:00 // Umeen Txapelketa Gastronomikoa
ALDAI PLAZAN

11:30 // Koadrila historikoen topaketa hamaiketakoa jateko
Duela bi urte ekin zioten Laudioko koadrila historikoetako kideek jaietan aktiboki parte hartzeari. Egitarau propioa plazaratuko duten hirugarren urtea izango da aurtengoa
ZUBIAUR KALEAN

café araba
Jai zoriontsuak!
Pintxoak
Bokatak
Errazioak
Zumalakarregi etorbidea 35 (Laudio)
94 672 38 08

bonaire
disco bar
Zure jaietako disko-taberna!
Zumalakarregi etorbidea, LAUDIO 946 72 58 41

EGITARAUA

12:30 // Entzierroa eta bigantxak
Soilik 16 urtetik gorakoentzat

12:30 // San Roke Musika Elkartearen kontzertua
ALDAI PLAZAN

12:30 // Erraldoiketa: Lehen kalejira
Informazio gehiago 60-61. orrialdeetan
ALDAI PLAZAN

12:30 // Animazioa Laudioko gaiteroekin

13:00 // Kalejira herriguneko kaleetatik
Txistulari eta turutalarien laguntzarekin

14:30 // Herri bazkaria
Tiketak Sorgin eta Ilargi tabernetan salgai 5 euroren truke
GAZTETXEA

15:00 // Koadrila historikoen bazkaria
70eko eta 80ko hamarkadetako musika jarriko dute otordua girotzeko. Horren ostean kalejira txistulari eta turutalariekin
ELIZAKO ARKUPEETAN

16:00 // Twister erraldoia
Intziriak kuadrillak antolatuta
LAMUZA PARKEAN

17:00 // Erraldoi eta buruhandien kalejira
HERRIKO PLAZATIK

12:30 // Erraldoiketa: Bigarren kalejira
Herriko kaleetan barrena ibili ostean, Herriko Plazan bukatuko dute eguna 18:00etan, konpartsa guztien argazkia eginda. Informazio gehiago 60-61. orrialdeetan.
ALDAI PLAZAN

18:00 // Herri kirolak
ALDAI PLAZAN

18:00 // Aurresku lehiaketa
HERRIKO PLAZAN

EROSKI
1977tik ZUREKIN Laudion

ROLDAN CONSTRUCCIONES SL
Teilatuak · Fatxadak · Berritzeak · Margoketak · Inpermeabilizatzeak
Telleria, 8 · Laudio (Araba) · 946 72 57 77 / 646 47 77 50

18:30 // Animazioa Laudioko Gaiteroen eskutik

19:00 // Fandango eta arin-arin erakustaldia
HERRIKO PLAZAN

20:00 // Antzerkia:
"CHEF NATURA"
Markeliñe konpainiaren antzezlana. Jatetxe batean girotua dago eta gizakiak teknologia berriekin duen harremana du ardatz.
HERRIKO PLAZAN

20:00 // Kalejira eta barbakoa San Roke ermitako aldapatik abiatuta
Xirika eta Zoroak Inkurtul Taldea kuadrillek antolatutako jarduera

21:30 // Afari musikatua
BATZALARRIN KALEAN

21:30 // Kontzertua:
HOTEL RUIDO
INDRISKA

21:30 // Kontzertua:
RAITX
Rap, reggae eta flamenko estiloetako musikak kitarra akustikoa baliatuta uztartzen dituen kantautorea
TXOSNAGUNEAN

21:30 // Ikuskizuna:
TIO TEROREN SEMEAK
Euskal dantza tradizionala eta umorea uztartzen ditu ikuskizunak
HERRIKO PLAZAN

22:00 // Jai tematikoa
Galtzagorri kuadrillaren eskutik
ZUBIKO KURAJON

BABESTUTAKO EDUKIA

ELKARTASUNA ETA JAIA UZTARTUKO DITU TOLO TABERNAK SANROKEETAN

Sukaldea eguerditik iluntzera arte izango dute zabalik jaietan, eta iraileti aurrera menu berriak eskainiko dituzte.

Iazko ekimenaren irudi bat.

Laudioko Jaietarako prest daude Laudioko Tolo tabernako kideak. Aldai plazan dago establezimendu hori, festaren epizentroan. Gauzak hala, eguerditik iluntzera arte izango dute zabalik jatetxeko sukaldea, gosetuta bertaratzen den pertsona oro asetzeko prest. Pintxoak eta mota guztietako edariak ere eskainiko dituzte.

Berakatz zopa solidarioa

Horrez gain, elkartasun ekimena egingo dute tabernan abuztuaren 22an: Berakatz zopa solidarioa. "Laudioko Berakatz Zoparen Kofradiarekin elkarlanaean antolatzen dugu. Guk osagaiak ematen dizkiegu, eta zopa prestatzen dute", azaldu du Tolo tabernako kidea den Javier de Mariak, "egun horretan lortzen dugun diruaren %10a Gurutze Gorriari ematen diogu".

Jaiak amaituta denbora gutxi izango dute Toloko kideek atsedena hartzeko, indartsu hasiko baitute iraila. "Menu berriak plazaratuko ditugu", aurreratu dute.

Tolo Restaurant

Aldai enparantza, **LAUDIO** Tel. 672 23 50 65 **www.tolobar.com**

ELKARRIZKETA

SORGINLARREN ELKARTEKO KIDEAK DIRA ANDER FERNANDEZ AMONDO, MIKEL HUIDOBRO GUTIERREZ eta JULEN ANDA ANGULO. EUSKAL HERRIKO ERRALDOI MITOLOGIKOEN TOPAKETA EGINGO DUTE ABUZTUAREN 16AN.

"Euskal Herriko ia 100 lagun bilduko ditu Erraldoiketak"

Erraldoiketa ekimena egingo duzue Laudioko Jaietan, abuztuaren 16an. Zertan datza?

Julen: Euskara bultzatzeko eta euskal mitologiako pertsonaiak ezagutarazteko asmoz antolatu dugu ekitaldia. Egun horretan umeek aukera izango dute Euskal Herriko beste erraldoi batzuk ikusteko, Laudioko Jaien egitarauaren barruan.

Euskal Herriko hainbat konpartsen topaketa izango da. Zer talde etorriko dira?

Ander: Egitarau oparoa prestatu dugu. Ekimena Laudioko Jaien bigarren egunean egingo dugunez, nahiko zaila izan da egingo diren gainontzeko ekintzekin koordinatzea. Kalejirak egongo dira goizez eta arratsaldez, herriko kaleetan barrena. Eguerdian, aldiz, bazkaria egongo da Gaztetxean. Familia argazkia ere egingo dugu, egunari amaiera emateko. Sorginlarrenez gain, Euskal Herriko hiru konpartsa egongo dira: Bidasoakoa, Txantreakoa eta Ostargi konpartsa.

Mikel: 90 pertsona inguru egongo dira, konpartsa eta laguntzaileen artean.

Ez da erraza izango horrenbeste jende koordinatzea. Zer moduz daramazue antolakuntza?

Ander: Ondo goaz, baina oraindik gauza ugari egitea falta zaizkigu ekimena aurrera ateratzeko. Astero egiten ditugu bilerak, ostiraletan. Azken bilerak antolatzen gabiltza orain, gero jendeak oporrak hartzen dituelako eta dena azken unera arte uztea ekidin nahi dugulako.

"Hiru erraldoi konpartsa etorriko dira abuztuaren 16an eta bi kalejira egingo ditugu"

Laudioko Jaien ostean, beste ekimen bati ekingo diozue irailean: Sorginlarrenen bigarren urteurrena. Zer prestatuko duzue?

Ander: Bai, datorren irailean dugu urteurrena ospatzeko asmoa. Lagundu gaituen jende guztia biltzea eta eurekin eguna pasatzea izango da helburua. Egitarau oparoa osatzen gabiltza horretarako, ekintza ugari prest ditugu dagoeneko.

Bi urte igaro dira Sorginlarren sortu zenutenetik. Zer nolako bilakaera izan du taldeak orain arte?

Julen: Ibilbide zabala egin du Sorginlarrenek bi urte hauetan. 2016an sortu zenetik handitzen joan da taldea apurka-apurka. Lau kide gaude orain, eta espero dugu datozen urteetan jende gehiago batzea. Gauza berriak sortu ditugu, eta hainbat ekitaldi antolatu ditugu, haur zein helduei zuzendutakoak.

Erraldoi eta buruhandi mitologikoen talde bat izatetik, kultura eta aisialdia modu zabalagoan lantzera pasa zarete.

Ander: Hala da, bai. Hala ere, aurten mendi irteera gutxiago egingo ditugu, Erraldoiketa antolatzeak lan handia ekarri digulako.

EGITARAUA

22:00 // Berbena:

HAVANA 537

Laudioko antzinako jaien argazki eta bideoekin egindako filma baten proiekzioa egingo da kontzertua amaitzen denean
ZUBIAUR KALEAN

23:00 // Kontzertuak:

PELAX
DEIMOCRACY
LIHER

Pelax kantautoreak "Talkak egiten du didaktika" diskoa aurkeztuko du. Deimocracy taldeak, aldiz, metal doinuak taularatuko ditu, Goiatz Dutto musikari laudioarra baterian duela. Liher taldeak, aldiz, "Tenpluak erre" lana plazaratuko du
TXOSNAGUNEAN

23:00 // Kontzertua:

GOZATEGI

"G-puntua" izena jarri dio triki-pop talde mitikoak une honetan gauzatzen ari den birari
ZUMALAKARREGIN

08.17 OSTIRALA
SAN ROKEZAR EGUNA

9:00 // Kalejira
Ekin Joleak txistulari taldearekin

EGITARAUA

11:00 // Diana auzoetatik
Laudioko Gaiteroen eskutik

11:00 // Hasiberrientzako entzierroa

11:00 // Familiagunea
TXOSNAGUNEAN

11:30 // Paella txapelketa
ALDAI PLAZAN

12:00 // Meza
DONE PETRI PARROKIAN

12:30 // Animazioa Laudioko Gaiteroen eskutik

12:30 // Bertso-saioa
Izar Mendiguren eta Itxaso Paiarekin
TXOSNAGUNEAN

12:30 // Entzierroa eta bigantxak
Soilik 16 urtetik gorakoentzat

12:30 // Kalejira San Roke Musika Elkartearen eskutik

14:00 // Herri bazkaria
Paella lehiaketako parte hartzaileek jango dute. Bazkalostean bingoa egongo da.
ALDAI PLAZAN

14:00 // Gure nagusien (65 urtez gorako pertsonen) omenezko bazkaria
Izen-emateak: abuztuaren 1etik 10era, udaletxeko beheko solairuan (HAZan). Ondoren dantzaldia egongo da Belle&Blue-ren eskutik.
LAUDIO BHI-KO JOLASTOKIAN

17:00 // Erraldoi eta buruhandien kalejira

17:00 // Jolasgune erraldoia
ALDAI PLAZAN

18:00 // Boleibol txapelketa herritarra
Kultur Arteko Zubiak eta Basalarrina elkarteek antolatu dute ekimena, jatorri ezberdinetako laudioarren arteko harremanak sustatzeko
ALDAI PLAZAN

18:00 // Bote luzeko eskupilota erakustaldia
Herriaren Pelotazale Elkartearen eskutik
ZUMALAKARREGI ETORBIDEAN

18:30 // Animazioa Laudioko gaiteroekin

19:00 // Cluedo poteoa eta txaranga
Kuadrillen arteko harremana estutzeko jokoa da Cluedo poteoa. Hiltzailearen jolasaren tankerakoa da, poteatu bitartean egitekoa.
ALDAI PLAZATIK

19:00 // Antzerkia:
"NAUFRAGOS"
La Industrial Teatrera konpainiaren lana. Klown ikuskizuna da, adin guztientzat.
HERRIKO PLAZAN

21:00 // Kontzertua:
PURO RELAJO
2013an sortutako Mariachi taldea
HERRIKO PLAZAN

22:00 // Iluntze musikatua:
ILARGIAK
Amurrioko hirukote akustikoa da Ilargiak. Abesti ezagunen bertsioak taularatuko dituzte.
TXOSNAGUNEAN

23:00 // Kontzertuak:
RADIO REVOLUCION
GATILLAZO
Bere lehen diskoko abestiak taularatuko ditu Radio Revolucion talde aiaraldearrak, "euskal kumbia" jorratuz. Gatillazo taldeak, aldiz, bere ibilbideko abesti ezagunak joko ditu
TXOSNAGUNEAN

23:30 // Kontzertuak:
LA FURIA
ANITA PARKER
KOBAN
Rap erritmoak letra feministekin uztartuko ditu La Furiak. Anita Parker eta Koban taldeek, aldiz, electro-swing estiloko musika taularatuko dute
TXOSNAGUNEAN

aldatz
café - bar
BETIDANIK...
zure lehenengoa / azken geraldia!

ILARGI TABERNA
Jai zoriontsuak!
Batzalarrin kalea 6, Laudio
94 672 09 99

SURYA
Masaje terapeutikoak
Masaje lasaigarriak
Aurpegi-tratamenduak
Gorputz-tratamenduak
Estetika-tratamenduak
Etxez etxeko makillajea
Jai zoriontsuak!
Zumalakarregi 28, LAUDIO · 944 030 362 688 887 950
www.suryallodio.es @SuryaLlodio

babiotec®
suministros
Industriarako hornidura integrala
Jai zoriontsuak!
babiotec@suministrosbabiotec.com / 945105479

ARTIKULUA

KOADRILEN EGUNEKO BAZKARIA, KOLOKAN

Aurtengo Koadrilen Eguneko bazkaria izango da Kuxinak koadrilak antolatuko duen azkena. Hala erabaki dute taldeko kideek. Urte luzez egon dira otordu horretako indabak prestatzen. 2003. urtean egin zuten lehenbiziko aldiz. "Lehenago Txinpartak koadrila arduratzen zen bazkaria atontzeaz, baina egiteari utzi zioten", oroitu dute Kuxinakeko kideek.

Ñorrala koadrilak bokata-jana antolatzeari ekin zion orduan, egun horretan koadrilak elkarrekin bazkaltzeko ohitura galdu ez zedin. Kuxinak koadrilako kideak oso gazteak ziren, unibertsitate zeuden asko. "Ez genekien indabak egiten, eta 400 pertsonentzat are gutxiago". Baina, hala eta guztiz ere, bazkaria berriz abian jartzea erabaki zuten. Laguntza izan zuten, hori bai. "Koadrilako kide baten lehengusina, Zuriñe, sukaldari profesionala zen, eta berak lagundu gintuen lehen urteetan", azaldu dute.

Bazkaria egiteko jarraitu beharreko pauso guztiak koaderno batean bildu zituzten, aurrerantzean koadrilaren "biblia" izango zena. "Ordutik hona, urtero sartu dugu hobekuntzaren bat bazkarian, aurreko urteko balorazioan oinarrituta".

Gorakada eta beherakada

Elizako arkupeetan egin zuten bazkaria lehen urteetan, baina laster pasa ziren institutuko frontoiko itzalpera. Azken urteetan, baina, Aldai plazan egin dute, txosnagunearen epizentroan. Jendearen partetik izandako harrera "olatu" baten modukoa izan da, Kuxinakeko kideen hitzetan. "2010. urtean 700 pertsona egotera iritsi ziren. Ordutik hona, baina, behera joan da kopurua. Gaur egun 400 pertsonakoa da bataz bestekoa".

Belaunaldi aldaketaren beharra

Azaldu dutenez, koadrilen bazkaria egiten hasi eta gutxira ikusi zuten Jaiak Koordinakundea berpizteko beharra. "Burokrazia afera asko egin behar izan genituen bazkaria prestatzeko, eta kudeaketa hori guztia bateratzearen beharra ikusi genuen, koadrila bakoitzak berea egin beharrean". Modu horretan sortu zen gaur egungo koordinakundea. Hala ere, belaunaldi aldaketa premiazkoa dela uste dute Kuxinakeko kideek. "Bazkaria egiten hasi ginenean ez genuen uste 35-38 urte izan arte egongo ginela antolatzen, belaunaldi aldaketa lehenago emango zela uste genuen".

Ez dago argi datorren urtean nork hartuko duen bazkaria egiteko ardura, ez eta egingo den ere. Hala ere, Kuxinakeko kideek nabarmendu dute jarraituko dutela jaietan parte hartzen: "Bitxia izango da bazkarira jatera joatea, hainbeste urte antolakuntzan egon ostean".

Eskerrak eman nahi izan diete urte hauetan guztietan lagundu dieten norbanakoei. "Egon da jende bat beti etorri izan dena laguntzera, patatak zuritzen, mahaiak jartzen edo tresnak garbitzen".

AZTARNAK
TXAKUR HEZIKETA ADIESTRAMIENTO CANINO
Ezagut ezazu hezi ezazu goza ezazu
IZAN ZURE TXAKURRAREKIN HARREMAN EGOKIA
errespetatu haren izaera eta estutu gizaki-txakur lotura
DEI IEZAGUZU! 671 188 227
JARRAI GAITZAZU FACEBOOKEN

Iraileko hilabetean %10eko deskontua eskulanetan balea aurkeztuz
* Balea metaezina da
ARC LAUDIO
Mikel Cortés
Pneumatikoak auto eta motoentzako
Autoen Mekanika
"Zure autorako kalitate, zerbitzu eta arreta berezitua"
www.confortauto.com
JAI ZORIONTSUAK!
CONFORT auto
Arantzar poligonoa 1, Laudio 94 407 58 11 / 626 21 97 65 arc.llodio@gmail.com

08.18 LARUNBATA

9:00 // XLI. Arrautzopil eta untxi txapelketa
Rakatapla taldeak antolatutako gastronomia lehiaketa. Jaien barruan egiten zen lehen. Orain, aldiz, jaien tarteko larunbatean gauzatzen da
ZUMALAKARREGIN

08.22 ASTEAZKENA
BERAKATZ EGUNA

9:30 // Eskupilota partidak
Neska zein mutilen partidak binakako pala eta eskupilota modalitateetan, benjaminen, kimuen eta haurren kategorietan, Herriaren Pelotazale Elkarteak antolatua
LAMUZAKO FRONTOIAN

10:00-14:00 // Haurrentzako jolasgunea
LAMUZA PARKEAN

10:30 // XV. 3 X 3 Hockey Txapelketa haurrentzat
LAUDIO BHI-N

11:00 // Familiagunea
TXOSNAGUNEAN

11:00 // Xake partida bizkorrak
Laudio Xake taldeak eta Basalarrina elkarteak antolatuak
ALDAI PLAZAN

11:30 // Sokaren hasiera
Adinekoen egoitzatik abiatzen da kalejira. Untzueta dantza taldeak antolatzen du. Pastak eta garrafa eramaten dituzte asto baten gurdian, bertaratzen direnentzat
ADINEKOEN EGOITZATIK

11:30 // Sokaren amaiera eta aurreskua
HERRIKO PLAZAN

14:00 // Herri bazkaria
ALDAI PLAZAN

16:00 // Dantza plaza Patxi ta Konpainiarekin
ALDAI PLAZAN

16:30-19:00 // Umeentzako jolasgunea
LAMUZA PARKEAN

17:00 // Erraldoi eta buruhandien kalejira
HERRIKO PLAZATIK

17:30 // XXIII. San Roke Hockey Txapelketa herritarra
Ganbegi 6-2 Hockey taldeak antolatuta
GARDEAKO KIROLDEGIAN

18:00 // Ikuskizuna:
"ZATOZ JOLASTERA"
Irrien Lagunak taldearen ikuskizuna. Marikalanbre eta Largabista dira obraren protagonistak.
TXOSNAGUNEAN

Atzera begira

Azken hamarkadetako festen bilakaera ikusi nahi? Laudioko San Roke jaietako argazki zaharren bilduma plazaratu dugu webgune berezian, ehundik gora irudirekin. Bi bideo ere topatu daitezke bertan, 80. eta 90. hamarkadetako irudiekin.

www.aiaraldea.eus

JAIETAKO WEBGUNEA ABIAN!

WEBGUNE BEREZIA ATONDU DUGU AIARALDEA.EUS ATARIAN LAUDIOKO JAIEI BEGIRA. BERTAN TOPATU DAITEKE JAIEN NONDIK NORAKOEN INFORMAZIO GUZTIA. ARGAZKIAK, BIDEOAK... EGUNERATZEN JOANGO GARA JAI-EGUNEK AURRERA EGIN AHALA

Jaien jarraipen berezia

Ekintza esanguratsuenen zuzeneko jarraipena egingo dugu, Aiaraldea.eus webgunean eta sare sozialen bidez.

Horrez gain, argazki eta bideo bidez emango dugu festen berri, eta bi bideo-erreportaje berezi atonduko ditugu, bana jaien zati bakoitzeko.

TOÑI ARRAINDEGIA
Laudioko Abastos Azokan
toniarraindegia@gmail.com
94 672 8134

M.A.P
MUAPEK
Aluminio eta P.V.C leihoak
Tailerra
TRAPAGARAN
Erakusketa
94 672 23 26
muapek@gmail.com
Zumalakarregi etorbidea, 21
LAUDIO

19:00 // Antzerkia:
"SAGARTU"
Agurtzane Intxaurraga antzerkigile orozkoarrak zuzendutako lana. Sagarra du ardatz, musika eta dantza baliatuta. Euskaraz taularatuko dute ikuskizuna
HERRIKO PLAZAN

19:00 // Kantukada
ALDAI PLAZATIK

21:30 // Iluntze musikatua:
MARA
TXOSNAGUNEAN

21:30 // Habanera gaua:
RONDALLA AL SEJO
HERRIKO PLAZAN

21:30 // Koadriga lasterketa
Koadrigak egiteko auzolanak egingo dira Gaztetxean abuztuaren 20 eta 21ean, 18:00etatik aurrera. Bertan eskuratu ahalko dira koadrigak egiteko oinarrizko materialak. Tokian bertan eman daiteke izena parte hartzeko
ZUMALAKARREGIN



23:00 // Zunba
TXOSNAGUNEAN

23:00 // Kontzertuak:
DISASTER NOW
HERIO
II (KRIS MG)
OSSYRIS
Rockein lehiaketan parte hartu duten taldeak dira laurak
ZUMALAKARREGIN

08.23 OSTEGUNA
KUADRILLEN EGUNA

10:00-14:00 // Haurrentzako jolas parkea
LAMUZA PARKEAN

11:00 // Familiagunea
Puzgarriak eta jolasak egongo dira plazan
TXOSNAGUNEAN

14:00 // Kuadrillen bazkaria
Kuxinak kuadrillak prestatuko ditu babarrunak, azkenengo aldiz (ikusi 64. orriko artikulua). Doako bazkaria da
ALDAI PLAZA

16:30-19:00 // Haurrentzako jolas parkea
LAMUZA PARKEAN

EGITARAUA

18:00 // Muturreko herri kirolak
Zoroak Inkurtul Taldeak antolatutako jokoak. Parte hartzaileek hainbat proba egin beharko dituzte
ZEZEN PLAZA

19:00 // Antzerkia:
"QUEBRADAS E IMPERFECTAS"
Iñigo Martinez dantzari laudioarrak eskainiko du emanaldia, Davinia Descals kataluniarrarekin batera. Duela bi urte txosnagunean eskaini zuten ikuskizun bera izango da, 20 minutu ingurukoa. Hainbat sari eta aitortza lortu dituzte lan horri esker
HERRIKO PLAZA

19:00 // San Roke Txapelketa zaldi-probak
Lauzaldi Kirol Elkarteak antolatutako ekintza
ALBERTO ACERO

19:00 // Kalejira
Zaparrada taldearen eskutik
ZEZEN PLAZATIK

21:00 // Antzerkia:
"SINVERGUENZAS"
Iñigo Martinez eta Davinia Descalsek eskainiko duten bigarren antzezlana izango da. Anizitasun funtzionala eta harreman sexu-afektiboen beharra landuko dituzte ikuskizunean
HERRIKO PLAZA

TOUAREG berria. SUV-aren IRAULTZA
Diseinu bakarra, eta sekula ikusi gabeko teknologia

Garaje Yas
C/ Iritxusi, 1 - Amurrio
Tel: 945 890 334 · www.garajeyas.net
Volkswagen
Audi Service
SEAT

IÑAKI
MOSKOSO

PIRULO TXOUKO ABESLARIA

Pirulo Txou: Laudioko Jaien arima?

Laudio, 80ko hamarkadaren erdialdea. Abuztuko jaietan koadrilen giroa aparta zen. Erokeriak, txantxak, abestiak, asmakizunak, pertsonaiak... Laudioko Jaietako arimak gorputza hartzen zuen 11-17 egunetan. Gero, urtean zehar, lagunekin dena oroituz barrez lehertzen ginen. Pirula Irratian jaietako arima uhinetara eraman genuen 4 urtez, "Sobremesa, Sobrepesa, Sobrepasa" irratsaioan. 1989an, zirkulua itxi genuen, festetako txantxak, festan bertan plazaratuz, herri erdian, herri aurrean, mozorratutak, modu herrikoian, Pirulo Txou... Jose Luis no me mires con el ojo de cristal taldea osatu zen, gonbidatu berezia. Harrera ona izan genuen eta hortik aurrera ikusle pila.

Eta ikasten, lantzen eta hobetuz joan ginen, barre egiteari utzi gabe. Bideoak, antzerkia eta musika, ikuskizun multimedia, mundu paralelo bat eraikiz: Planeta Pirulo. Zirkulua handituz eta barruan erortzen zirenak harrapatuz: 119 PirulERO eta Made in Laudio emanaldia. Eta itxitako zirkulua berriro zabaldu genuen, eta ikuskizuna Laudioko Jaietatik, tabernetara, gaztetxeetara, antzokietara, Euskadira eta Madrileraino eraman genuen, urte osoan zehar.

5 urte pasa dira Laudioko Jaietako azken Pirulo Txoutik, eta 4 urte azken kontzertutik. Piruloren arima Interneten mantentzen da. Noizean behin kalean agertzen da: Esne Potaken kontzertu batean, koadrilen kalejiran, Ojodagilan, Uhinak Irratian, SOS Parkean...

Arima hori Txouan bihurtuko al da berriro? Belaunaldi berri batek berpiztuko du ala jubilatuek?

Gora Laudioko Jaiak!! Gora Pirulo Txou!!

EGITARAUA

21:00 // Danzatloia
Ume eta gazteentzako animazioa Xaibor artistaren eskutik

21:30 // Iluntze musikatua:
ZIZTADA & RLANTZ
Rlantz musikari amurrioarrak Ziztada abeslariarekin batera sortutako proiektua da Ziztada & Rlantz. Reggae-stepa jorratzen dute. Urte hasieran plazaratu zuten lehen diskoa eta bigarrena prestatzeari ekin diote dagoeneko
TXOSNAGUNEAN

21:30 // Kontzertua:
TRIO VERACRUZ
Musika latinoamerikarreko bolero ezagunenak joko ditu Juana Ogayar, Alberto Martin eta Jose Sanchezek osatutako hirukoteak
HERRIKO PLAZAN

22:00 // Kontzertua:
PLACTON
Urduñako taldeak azken hamarkadetako rock abesti ezagunen bertsioak joko ditu
BATZALARRIN KALEA

Iturria: Alex Jimenez

ATZERA BEGIRA

Goitibera jaitsierak arrakasta handia izan zuen Laudioko jaietan hainbat urtez, antolatzeari utzi zitzaion arte. Proba berreskuratzeko saiakerak egin ziren duela zenbait urte, baina ez zuten jarraipenik izan. Egun, gabarra jaitsiera edo koadriga lasterketa bezalako ekimenek hartu dute lekukoa.

Konpromisoa
gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin

JEZ
euskararekin

JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar, z/g • 01400 Laudio (Araba)
Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es

23:00 // Kontzertuak:

EGURRA TA KITTO SKAKEITAN URRATS

Ska musika jorratuko dute Egurra Ta Kitto eta Skakeitan taldeek, bakoitzak bere moduan. Ibilbide luzeko taldeak dira biak: hamar urteko ibilbidea egin dute dagoe neko eta bosna disko plazaratu dituzte. Urrats erromeria, aldiz, gaua ordu txikietara arte luzatzeaz arduratuko da
TXOSNAGUNEA

23:00 // Kontzertuak:

QUINTA RESERVA ETA LAGUNAK

Kontzertu berezia eskainiko dute euren urteurrena dela eta
ZUMALAKARREGIN

08.24 OSTIRALA
BASERRITAR EGUNA

9:00-14:00 // Azoka
Tokiko produktuak eta artisautza
ZUMALAKARREGIN

10:30 // San Roke Bolatokiko Lehiaketa Nagusia
Gazteentzat A probalekuan 10:30etik 11:30era eta 17:00etatik 17:30etara; eta seniorrentzat zein emakumezkoentzat B probalekuan 11:30etik 12:30era eta 18:30etatik 20:30era. Club Bolatoki R. Urquijo elkarteak antolatutako norgehiagoka
SAN ROKE UDAL BOLALEKUAN

11:00-14:00 // Pintxo gargantua
HERRIKO PLAZAN

LTS TALLERES
Driver.
PNEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
MEKANIKA INTEGRALA – KAMIOIAK ETA AUTOAK
TORREZAR POL. IND. • OROZKO
TEL. 670 383 166 • ltstalleres@grupo-driver.com

AZOKA
ETORRI ETA EZAGUTU TABERNA BERRITUA!
Giro lasaiaz eta **konbinatu paregabeaz** gozatu
Mundu osoko **artisau-garagardoen** eskaintza zabala
Kafe karta: frappeak, smoothiak, irabiaki naturalak
Alberto Acero enparantza 13 (Laudio) 94 672 42 13

PROTOKOLOA, SALAKETA TELEFONOA ETA MOBILIZAZIOAK
ERASO MATXISTEI AURRE EGITEKO

Ekainean aurkeztu zuen Bagara Nor talde feministak eraso matxisten aurkako protokoloa. **Aiaraldea.eus**

Eraso matxisten aurkako dinamika ugari egin dira sanrokeetan azken urteetan, eta aurtengo jaiak ez dira salbuespena izango. Hori bai, hainbat berrikuntza egongo dira mugimendu feministaren planteamenduan. Tresna berri ugari jarriko ditu abian Bagara Nor talde feministak jaiei begira.

Horietako bat izango da iragan ekainean plazaratu zuten protokoloa. Prozesu luze baten emaitza izan da dokumentu hori, talde feministako kideen hitzetan. "Hilabete ugari eman ditugu eztabaidatzen, hausnartzen, beste protokolo batzuk kontsultatzen eta azkenean aukera izan dugu gurea sortzeko, herrian horren beharra ikusten genuelako".

Emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako erasoei aurre egiteko eta emakumeen saretzean sakontzeko tresna gisa baliatu nahi dute protokoloa. Hala ere, nabarmendu dute ez

dela dokumentu itxi bat. “Erabili ahala sortzen diren beharren arabera aldatzen joango gara”.

Salaketa telefonoa

Protokoloaz gain, salaketarako telefonoa ere jarriko dute martxan Bagara Norreko kideek jaietan. Otxomaioetan eta Amurrioko Jaietan egongo den telefono zenbaki bera izango da: 688 745 180. “Jaietako egun guztietan egongo da funtzionamenduan, 24 orduz, salaketak jasotzeko prest”.

Mobilizazioa abuztuaren 24an

Horrez gain, mobilizazio ez-mistoa deitu dute Bagara Norreko kideek jaietarako. Baserritar Egunean (abuztuak 24) egingo dute, 22:30ean txosnagunetik abiatuta.

Udalaren protokoloa

Laudioko Udalak ere protokolo propioa osatu du jai giroan ematen diren erasoei begira. Formazio saioak egin zituzten ekainean, protokoloaren nondik norakoak herriko elkarte, tabernari eta norbanakoei azaltzeko. Amets Meatza zinegotziak azaldu du honakoa ez dela jaietan ematen diren eraso matxisten aurka egin duten lehen ekimena. “Kartelak atera eta erasoen aurkako bertso-saioak antolatu ditugu azken urteetan. Horrez gain, bideo bat plazaratu genuen iaz, sare sozialetan zabalpen handia izan zuena”.

Irudia: Aitziber Duarte

EGITARAUA

11:00 // Familiagunea
TXOSNAGUNEAN

11:30 // Arabako Natura 2000 Sareari buruzko gertuko magia
Arabako Foru Aldundiak antolatutako ekintza

12:00 // Dantzak
Itxarkundia taldeko kideek erakustaldia egingo dute
HERRIKO PLAZAN

12:00-15:00 // Animazioa Beti-jai fanfarrearekin

12:00 // Pintxo eta igel-toka txapelketak
Basalarrina elkarteak antolatutako jarduerak
BATZALARRIN KALEAN

14:00 // Herri bazkaria
Zintzarriak eta Algarat suak koadrilek antolatutako ekintza
ELIZAKO ARKUPEETAN

17:00 // Erraldoi eta buruhandien kalejira
Kataluniako “La Colla de Castellers de Esplugues de Llobregat” casteller taldeko kideak herrian egongo dira. Emanaldia eskainiko dute
ELIZAKO ARKUPEETAN

LAUDIO CAFE BAR GORKA 1982
EGUNERO: **PINTXO BARRA**
ASTEBURUETAN: **ERRAZIOAK**
Jai zoriontsuak!
Batzalarrin kalea 7 (Laudio) 94 672 49 30

laudio language school
Open your mind!!
2018-19 Matrikulazio epea zabalik!
INGELESA
FRANTZESA
ALEMANIERA
Helduak:
Hiru hileko kurtso intentsiboa
Bidaiarientzako ingelesa
Atzerrian zure mailako ikastaroa
Kontsultatu
Ingelesa
3 urtetik aurrera
Maila guztiak
Elkarrizketa-kurtsoak
Frantzesa
A1 mailatik B2ra
Elkarrizketa-kurtsoak
Alemaniera
Alemaniako irakasle esperientziadunarekin
Maila guztiak
TALDE TXIKIAK
tel.: 652 73 32 67
roezquerra@hotmail.com
/LaudioLanguageSchool

EGITARAUA

18:00-20:00 // Pintxo gargantua
HERRIKO PLAZAN

18:00-20:00 // Artzain txakurren txapelketa
Bi norgehiagoka egingo dira: San Roke jaietako artzain txakurren XX. Lehiaketa eta Bixente Urkijoren omenezko artzain txakurren XIV. Lehiaketa. Oihana Bartra eta Arkaitz Estiballes bertsolariak arituko dira lehiaketak girotzen eta "La Colla de Castellers de Esplugues de Llobregat" taldeak ere emanaldia eskainiko du
HERRIKO PLAZAN

18:00 // Diskotxantxa
Ziriki eta Mirikik haur zein helduak jarriko dituzte dantzan, abesti ezagunen koreografiak baliatuta
TXOSNAGUNEAN

19:00 // San Roke Txapelketako idi-probak
Lauzaldi Kirol Elkarteak antolatutako ekintza
ALBERTO ACERON

19:00 // Kalejira Latiorro auzoan zehar
Lankaietako Lagunak txistulari taldearen eskutik
LATIORRO AUZOAN

19:00 // Antzerkia:
"BAKEAN DAGOENA BAKEAN UTZI"
Idoia Torregarai Martija eta Mirari Martiarena Iraolak eginiko bakarrizketa. Euskara, umorea eta generoa izango dira emanaldiaren ardatzak
HERRIKO PLAZA

20:00 // Kalejira eta ogitartekoak
Itzelak koadrilak antolatutako jarduera
ALDAI PLAZATIK

21:30 // Iluntze musikatua:
SILVIO ETA RODRIGUEZ
Silvio Rodriguez kantautore kubatarraren abestien bertsioak jotzen dituen taldea
TXOSNAGUNEAN

22:00 // Kontzertua San Roke Musika Elkartearen eskutik
Rock eta metal abesti ezagunen bertsioak joko dituzte. "La Colla de Castellers de Esplugues de Llobregat" taldeak emanaldia eskainiko du kontzertuaren hasieran
HERRIKO PLAZAN

22:30 // Eraso matxisten aurkako manifestazioa
Bagara Nor talde feministak deitu du mobilizazioa. Txosnagunetik abiatuko da eta ezmistoa izango da
TXOSNAGUNETIK

23:00 // Kontzertuak:
AZALERA
CUCHILLO MANTECA
GOVERNORS
DANTZETAN JARRAI
Ondarroako eta Bolibarko lau kidek osatutako taldea da Azalera. Rocka jotzen dute, pop, stoner, eta rock esperimentalaren eraginarekin. Cuchillo Manteca, aldiz, musikaren munduan ibilbide oparoa egin duten lau laudioarrek osatutako rock taldea da. Governors taldeak metal doinuak jorratzen ditu eta Dantzetan Jarrai Aiaraldeko DJ bikote bat da
TXOSNAGUNEA

23:30 // Kontzertua:
REAL STRAILS
Dire Straits taldearen abestiak jotzen ditu taldeak eta zazpi kidez osatua dago
ZUMALAKARREGIN

08.25 LARUNBATA
ODOSLOSTE EGUNA

11:00 // Diana herriko auzoetan barrena
Laudioko gaiteroek esnatuko dute herria. Horren ostean, kalejira egingo dute herrigunean zehar

11:00 // Hasiberrien entzierroa

11:00-14:00 // Pintxo gargantua
HERRIKO PLAZA

11:00 // Familiagunea
TXOSNAGUNEAN

12:00-15:00 // Animazioa Beti-Jai fanfarrearekin
HERRITIK

12:30 // Entzierroa eta bigantxak
16 urtetik gorakoentzat soilik

12:30 // Animazioa Laudioko gaiteroen eskutik

13:30 // Bertsolariak VS La Colla de Castellers de Esplugues de Llobregat
Bertsolariak eta casteller taldea txandaka arituko dira
TXOSNAGUNEAN

13:30 // Txistularien XXXIX. Alardea
Ekin-joleak txistulari taldeak antolatuta
ELIZAKO ARKUPEETAN

15:00 // Herri bazkaria
TXOSNAGUNEAN

ONIEVA AUTOBUSAK
Ondo pasa jaietan!
Informazioa eta erreserbak:
94 672 64 45
Larrialdiak: 619 76 66 51
71 ESERLEKUKO AUTOBUSAK
WWW.ONIEVA.COM onieva@onieva.com

desde 1958tik aurrera
ANA MARI
MORCILLAS ODOLOSTEAK
ESKAINTZA BEREZIAK DITUGU OSTALARIENTZAT
TEL: 946 72 03 91
ABASTOS PLAZA

PINTURA Y DECORACIONES
GARTZIA
Margoketa eta apainketa orokorra
Mikrozementu aplikazioa
Pladur
Parket flotatzaile jartzea
Margoturiko papera jartzea
Fatxaden estaldurak
LAUDIO - Araba T. 689 219 826
dekogartzia@hotmail.com

15:00 // Txirrindularitza lasterketa
23 urtez beherakoen Elite mailako "XXIX. Laudio Saria-Memorial Pablo Bilbao" txirrindularitza-lasterketaren irteera, Zumalakarregi etorbidetik. Lasterketaren bukaera 18:30ean aurreikusi da. Laudioar Txirrindularitza Elkarteak antolatu du proba, urtero bezala
ZUMALAKARREGITIK

16:00 // San Roke Jaietako X. Pasabolo Txapelketa
Laudioko Pasabolo Klubak antolatutako ekintza
ZLAMUZA PARKEKO BOLATOKIAN

16:00 // San Roke Jaietako Bola-joko Arabarraren X. Txapelketa
Bolo Alavés kirol elkarteak antolatutako ekintza

17:00 // Erraldoi eta buruhandien kalejira
"La Colla de Castellers de Esplugues de Llobregat" casteller taldeak emanaldia eskainiko du kalejiran.

18:00 // Dantzaldia Erdizka Lauetan taldearekin
TXOSNAGUNEAN

18:30 // Animazioa Laudioko gaiteroekin

19:00 // Antzerkia:
"KALE GORRIAN"
Cia Barsanti konpainiaren antzezlana. Bikote nagusi baten etxegabetxearen istorioa kontatzen du, euskaraz
HERRIKO PLAZAN

19:00-21:00 // Pintxo Gargantua
HERRIKO PLAZAN

19:15 // Castellerren erakustaldia
ARABA ETA BATZALARRIN KALEEN ARTEAN

DRUMGORRI
Arte-ekitaldiei zuzendutako topalekua
LAUDIOKO INDUSTRIALDEA (Laudioko Santa Kurutze tren geltoki alboan)
Drumgorri Berriro Aretoa Drumgorri drumgorriaretoa@gmail.com

egoki FISIOTERAPIA OSTEOPATIA
Jai zoriontsuak!
· Fisioterapia funtzionala · Osteopatia ·
· Masaje terapeutikoa · Drenaje linfatikoa ·
· Bendaje funtzionala eta Kinesiotape ·
· Etxez etxeko zerbitzua ·
· Elikaduraren inguruko jarraibideak ·
Maestro Elorza 1, Llodio - Laudio (tren- geltokitik hurbil)
T 946 561 951 · M 605 446 628

20:00 // Musika animazioa Barbis taldearen eskutik
Oso ibilbide luze eta oparoa du Barbis taldeak. Portugaleten sortu zen 1966. urtean. Ordutik hona 300 abesti konposatu dituzte

20:00 // Odoloste jana

23:30 // Kontzertuak:
LADYS BAND STOMBERS
ZUMALAKARREGIN

0:00 // Preso eta iheslarien aldeko kalejira
TREN GELTOKIKO ZUBITIK

1:00 // IX. Lasterketa Galtzontzillo eta Kulerotan
HERRIKO PLAZATIK

1:30 // Kalejira Burrunda elektrotxarangarekin
HERRIKO PLAZATIK

2:00 // Disko dantza
TXOSNAGUNEAN

mundiSalud
Clínica Dental

Zure irribarrearen zerbitzura lanean

· Neurrirako finantzaketa
· Kolektibo handiekin adostuta

ADITUAK
· Odontologia orokorra
· Kirurgia
· Ortodontzia
· Estetika
· Plasma
· PADI
· Inplanteak

BERRIKUNTZAK
· 3D Erradiologia
· Ortodontzia ikusezina

AMURRIO ETA LAUDIOKO AIALA MEDIKU-ZENTRO BARRUAN GAUDE

Amurrio
Iritxusi 4-6
945891469

Laudio
Zumalakarregi 3, behea
www.clinicadentalmundisalud.com 946721927

Laudioko Txosnak 2018

Egotetik egitera!

ABUZTUAK 15-26
ALDAI PLAZA

15

13.00
Txosnen irekiera eta
URREZKO KATXIAren banaketa

14.00
ERROMERIA
TXIMELETA

22.30
ERROMERIA
AKERBELTZ

16

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak, buztin tailerra...

14.30
HERRI BAZKARIA
Gaztetxean

21.30
ILUNTZE MUSIKATUA
RAITX taldearekin

23.00
KONTZERTUA
PELAX

KONTZERTUA
DEIMOCRACY

KONTZERTUA
LIHER

17

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

11.30
Paella Lehiaketa

12.30
BERTSOPOTEOA
Txosnagunetik

14.00
BAZKARIA eta BINGOA

17.00
JOLAS GUNE ERRALDOIA

19.00
KLUEDO POTEOA
Txosnagunetik

22 .00
ILUNTZE MUSIKATUA
ILARGIAK

23.30
KONTZERTUA
LA FURIA

KONTZERTUA
ANITA PARKERA

KONTZERTUA
KOBAN

22

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

18.00
IRRIEN LAGUNAK

19.00
KANTUKADA
Dantza plazatik

21.30
ILUNTZE MUSIKATUA
MARA
(IGOR ARZUAGA)

23.00
ZUMBA

23

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

14.00
KOADRILEN ARTEKO
HERRI BAZKARIA

21.30
ILUNTZE MUSIKATUA
ZIZTADA eta ERLANTZ

23.00
KONTZERTUA
EGURRA TA KITTO

KONTZERTUA
SKAKEITAN

ERROMERIA
URRATS

24

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

18.00
DISKOTXANTXA

21.30
ILUNTZE MUSIKATUA
SILVIO ETA RODRIGUEZ

23.30
KONTZERTUA
AZALERA

KONTZERTUA
CUCHILLO MANTECA

KONTZERTUA
GOVERNORS

DJak
DANTZETAN JARRAI

25

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

13.30
CASTELLERS
vs. **Bertsolariak**

15.00
HERRI BAZKARIA

18.00
ERDIZKA LAUETAN
Dantzaplaza

02.00
DISKODANTZA

LAUDIOKO
TXOSNA
BATZORDEA
egotetik egitera!

750 METRO KARRATUKO FAKTORIA ERAIKITZEKO

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

AIARALDEA EKINTZEN

FAK TO- RIA

www.faktoria.eus

08.26 IGANDEA
KOFRADIA EGUNA / ROKETXUREN EGUNA

11:00-14:00 // Pintxo gargantua
HERRIKO PLAZAN

11:00 // Diana herriko auzoetan zehar
Laudioko gaiteroek egingo dute kalejira. Horren ostean, kalejira egongo da herrigunean zehar

11:00 // Prozesioa
San Rokeren irudia ermitara itzultzeko prozesioa izango da, eta meza nagusia egingo da jarraian landan. Laudioko Santa Luzia abesbatzaren eta Lankaietako Lagunak txistulari taldearen emanaldia ere egongo da

11:00 // Hasiberrientzako entzierroa

12:30 // Entzierroa eta bigantxak
16 urtetik gorakoentzat

12:30 // San Roke Musika Elkartearen kontzertua
Hainbat abestiren bertsioak joko dituzte
ALDAI PLAZAN

14:00 // San Rokeren kofradiako kideen bazkaria
ELIZAKO ARKUPEETAN

17:00 // Erraldoi eta buruhandien kalejira
HERRIKO PLAZATIK

18:00 // Kalejira San Roke Musika Elkartearen eskutik

18:30 // Animazioa Laudioko Gaiteroen eskutik

19:00 // Antzerkia:
"SEFINI"
Ixtear dagoen antzerki konpainia baten istorioa kontatzen duen gaztelerazko kale antzerkia, Trapu Zaharra konpainiarena
HERRIKO PLAZAN

21:30 // Kontzertua:
KEPA JUNKERA & SORGIÑAK
HERRIKO PLAZAN

23:30 // Kalejira eta Erroketxuren -jaietako maskotaren- erreketa
Jaiei amaiera emango zaio ekitaldi horren bidez. Ñorrala koadrilak antolatuko du
LAUDIO BHI-TIK

LATIORROKO JAIAK

IRAILAK 14-16

"OSO JAI XUMEAK" ANTOLATUKO DITUZTE, JENDE FALTAGATIK

Azken urteetan oso maila altua izan dute Latiorroko Jaiek. Puntako taldeek jo dute Laudioko auzo horretako festetan, eta jende andana bertaratu da. Iaz jo zuen goia jaiak, Euskal Herriko Marmitako Txapelketa egin baitzen auzoan. 1.300 lagun bildu ziren norgehiagokaren osteko herri bazkarian. Sukaldarien, gastronomiaren eta bertoko kalitatezko produktua maite dutenen bilgune bihurtu zen auzoa. Aurten, baina, "oso jai xumeak" antolatuko dituzte. Zergatik? "Jendea nekatu egin delako, oso jende gutxi gaude antolakuntzan eta ez dugu aurreko urteetako maila mantentzeko indarrik". Hala adierazi dute Jai Batzordeko kideek. "Belaunaldi aldaketa baten beharra" dagoela azpimarratu dute; "jende berri eta freskoarekin". Hala ere, ez dute festa hiltzen utziko. "Egitarau apala antolatuko dugu, Latiorroko jaietan urtez urte errepikatu diren hainbat ekintzekin. Oraindik ez dakite gauean kontzerturik eskainiko duten. "Ez dakigu txosna eta musika jarriko ditugun, indarren arabera baloratuko dugu".

Jende berriaren beharra

2011an sortu zen egungo Jai Batzordea, baina hasierako lantaldea txikitzen joan da urtez urte. Gauzak hala, jende berriaren beharra dagoela nabarmendu dute jaien antolatzaileek. "Interesdunek sare sozialen bidez eta lateorroko.jaiak@gmail.com helbidera mezu bat bidalita jarri daitezke kontaktuan gurekin".

EGITARAUA

09.14 OSTIRALA

18:00 // Danborrada

19:00 // Jaien hasiera

20:30 // Antzerkia

09.15 LARUNBATA

8:00 // X. Mendi martxa

11:30 // Umentzako tailer eta puzgarriak

12:30 // Igel txapelketa

14:30 // Herri bazkaria

17:00 // Mus txapelketa

09.16 IGANDEA

9:00 // XXIX. Marmitako Txapelketa

OHARRA: Honakoa behin-behineko egitaraua baino ez da

OROZKOKO JAIAK

ABUZTUAK 31-IRAILAK 4

JOSU SANPEDRO MONTALBAN
OROZKOKO ALKATEA

Sanantolinetako programaren atal honetan idatziko dodan azken aldia izanda, eta bertako ekitaldiak zorrotz aztertuko ditudan azkena izanda, jaiak ahalik eta pasio handienarekin goza ditzazuen baino ez dut desio.

Jai egitaraua dagoeneko beterik dago, Antolinzaleak Jai Batzordeak bere lana egin du. Orain, ahalik eta ekitaldi gehienetan gustura sentitzea bakarrik falta da. Programatu ezin diren ekintzetan ere ahalik eta gehien disfrutatzea opa dizuet; lagunekin, familian, bikotekidearekin edo, batek daki, ezagutu dezakezun pertsona bereziarekin.

Hori bai, zuk gozatzeak ez dezala eragin besteren kalterik. Gogora ezazu, EZETZA EZ DA, errespetuarekin jaiak hobeak dira. Ez dadila inor esnatu bezperan egindakoarekin edo egin diotenarekin damututa.

Hemendik aurrera, dantza egin, kantatu, txalo egin, besarkatu, musukatu, barre egin. Zure esku dago jaietako nire azken balantzea arrakastatsua izatea.

Kalean ikusiko dugu elkar! Gora Orozko, gora San Antolin!

OROZKO UDALA

PREGOILARIA

“Orozkoar askoren irakaslea izan naiz 33 urtetan”

AURTENGO SANANTOLINETAKO PREGOILARIA IZANGO DA MIREN BARRONDO (Orozko, 1935). HIRU HAMARKADA EMAN DITU HERRIAN IRAKASLE LANETAN.

Aurtengo pregoilaria izango zara garai bateko maistren izenean. Nola jaso zenuen berria?

Ez nuen espero! Baina momentuz pozik nago, bai. Eskertzen dot nigaz gogoratzea... Baina ez nuen uste hainbeste gauza egin behar zirenik! (kar kar)

Zure lana eskertzeko modu bat da pregoilari izendatzea.

Bai, hala da. 33 urte eman nituen irakaskuntzan... Orozkoar askoren irakaslea izan naiz bai (kar kar). Baina kaleei pertsonen izenak jartzea bezalakoa da hau. Pentsatzen dut batzuk eskertuta egongo direla nire lanarekin, baina ziur nago beste batzuk ez dutela oroimen onik... Pertsonok ez ditugu beti guztion gustura egiten gauzak, baina nire izena hor egongo da...

Eta, nola hasi zinen maistra lanetan?

Lehen pentsatzen zen karrerarik ‘egokiena’ zela emakumeentzat, eta lana lortzea ere errazagoa zen. Urtebete egon nintzen Ugaon behin behineko gisa eta gero nire postua eman zidaten Logroño ondoan, La Granen.

Hara joan baino lehen Urigoitiko Escuela de Patronato Parroquiala libre geratu zen eta aldaketa eskatu nuen. Urigoitin geratu nintzen.

JATETXEA
RESTAURANTE
ARRUGAETA
• Urtero bezala, **bokatak eta kazolatxoak**
• Abuztuaren 31tik irailaren 4ra arte **kartako bazkariak**
Zubiaur plaza, 8 - Orozko (Bizkaia) 94 661 00 01

ENEKO TABERNA
PLATER KONBINATUAK
SAIHESKIAK
UKONDOAK
OILASKO ERREAK
ERRESERBAK 946 56 77 35
GORBEIA, 11 BAXUA OROZKO

IDOIA CAMACHO ETA RAKEL OLAVARRIA

ADIE KULTUR ELKARTEA

Joko-poteoa

Zertan datza Berakatz egunean Adie Elkarteko kideok antolatzen dugun joko-poteoa? Erantzuna oso erraza da: koadrilek elkarrekin poteak hartzeko aitzakia bat. Eta hori da hain zuzen ere helburu nagusia, gakoa "elkarrekin" delarik.

Laupabost pertsonaz osatutako taldeei bideratutako jokoak prestatzen ditugu; non oreka, abiadura, punteria edo koordinazioa bezalako abileziak frogatzen diren. Joko guztietan puntu gehien eskuratzen duen taldeak jasotzen du saria. Baina joko-poteoan saria gutxienekoa da (berakatz-sorta bat), parte hartzen duten guztiok irabazten dugu, herriak irabazten du! Guretzat joko-poteoak alderdi sozial nabarmena du, konturatu gabe oso esparru garrantzitsuak lantzen baitira ekintza ludiko bidez, jarduera parte-hartzailea eta integratzailea da, pertsona desberdinen arteko konfiantza eta adiskidetasuna sustatzen dute, talde-lana lantzen da... Eta, gainera, modu xumean eta esfortzu handirik egin gabe jaiak herrikoiagoak bihurtzen ditugula uste dugu. Joko-poteoa sortu arte koadrila bakoitzak bere plana zuen Berakatz eguneko goiza pasatzeko eta gero herri-bazkarian elkartzen ginen, baina orain batera pasatzen dugu goiza. Adin guztietako pertsonak elkartzen gara parte-hartzen, antolatzen, ikusten eta, orokorrean, jai-giroaz gozatzen.

Lotsak alde batera utzi eta lagun artean ondo pasatzeko aukera paregabea da joko-poteoa. Gauzak hala, koadrila guztiak animatu nahi ditugu bertan parte hartzera. Eta norbaitek parte hartu nahi badu eta bere koadrilakoek gogorik ez badute, etor dadila berdin-berdin; talde guztietan egongo da lekua eta.

Jai-herrikoi eta parte-hartzaile batzuen alde!!

SANANTOLINAK

08.31 OSTIRALA
TXUPINAZO EGUNA

19:00 // Txupinazoa, kanpai hotsa, buruhandiak eta kalejira
Orozkoko musikari elkartearekin (ORME)

19:00 // Pelota partidak
Antolatzailea: Olgetan Euskal Pelota Kirol Elkartea

20:00 // Sardinak
Antolatzailea: Supelaur Kultur Alkartea
TXOSNAGUNEAN

21:00 // Bertso Saioa:
ONINTZA ENBEITA
IGOR ELORTZA
Antolatzailea: Potolari Bertsolari Eskolea
ZUBIAUR PLAZAN

22:00 Berbena:
BASAJAUN
ZUBIAUR PLAZAN

22:00 // Kontzertuak:
LOS TXARROS TXILAPASTROSOS
BEMBA SAOCO
HILEAN BARIKU BAT
TXOSNAGUNEAN

08.31 OSTIRALA
JUBILATUEN EGUNA

10:00 // Marmitako lehiaketa
Antolatzailea: Orozkoko EAJ-PNV
ESKOLAKO PATIO ESTALIAN

LTS TALLERES
Driver.
PNEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
MEKANIKA INTEGRALA – KAMIOIAK ETA AUTOAK
TORREZAR POL. IND. • OROZKO
TEL. 670 383 166 • ltstalleres@grupo-driver.com

soilik BAI da BAI
ezpelabarri
zubieta etorbidea 1 - Orozko
Tfnoa. 946330656
Ogi-barietateak Lorak
Gorbeiako Produktoak
Tartak eta Pastelak
Prentsa

ERREZETA

GARRAFA

KOLDO SANPEDRO

Hainbat aldiz irabazi du jaietako garrafa lehiaketa

Osagaiak:

· Orozkoko txakolina (edari guztiaren 2/3)
· Ura (edari guztiaren 1/3)
· Koñak apur bat (berezia bada, askoz hobe)
· Limoi bat garrafa litro bakoitzeko
· Azukrea (zopa-ontzi bat litro bakoitzeko)

Prestaketa:

1) Komeni da garrafa (tresna, ez edaria) aurretik ondo garbitzea. Garrafa asko txapazkoak dira, eta zatiren bat herdoildua badute herdoil zaporea utzi dezakete edarian.

2) Oso zaila da garrafa berdina (osagai proportzio berdinekin) behin baino gehiagotan errepikatzea. Nik ura eta txakolina nahasten ditut lehenbizi; eta azukrea, koñaka eta limoia gehitzen ditut gero. Kontuz ibili behar da edariari botatzen zaion azukre kopuruarekin, behin botata gozoegi geratzen bada oso zaila delako zaporea berrorekatzea.

3) Garrafaren testuraren oreka mantendu behar da. Edalontzitik ahora arazo gabe mugitu behar da. Baina, nola jakin garrafa prest dagoela? Eskuarekin irabiatzeko egin behar dudan indarra baliatzen dut nik kalkulatzeko. Geroz eta indar gehiago egin behar, orduan eta testura gogorragoa bihurtzen ari denaren seinale.

4) Garrafa kopuruari dagokionez, niretzat hobeagoa da jendea garrafa gehiago edateko gogoekin geratzea, soberan geratzea baino. Hainbat edukieretako garrafak ditut: 4, 5 edota 6 litrokoak. Nik bi litrokoak egiten ditut normalean, horiekin irabazi ditut txapelketa gehienak. Horrez gain, aipatu beharra dago ez dagoela edari hau egiteko errezeta zehatzik, norberaren gustuaren arabera moldatu daiteke.

10:00 // Kalejira "Beti jai" fanfarrearekin

11:00 // Meza
SAN JUAN PARROKIAN

12:00 Dantzaldia Ubixeta dantza taldearekin
Antolatzailea: Ubixeta dantza taldea

12:00 // Zekorrak zezen plazara ateratzea

13:00 // Herri kirolak
ZUBIAUR PLAZAN

13:00 // Kalejira Orozkoko Musikari Elkartearekin (ORME).

14:15 // Marmitako lehiaketaren sari banaketa

14:30 // Jubilatuen bazkaria
ESKOLAN

16:00 // Mus txapelketan izena emateko aukera

16:30 // Mus txapelketa
Antolatzailea: Orozkoko EAJ

17:00 // Futbol partidua: Atxulaur-Ugao

18:30 // Zekorketa

20:30 // Erromeria Lotxo taldearekin
ZUBIAUR PLAZAN

23:00 // Irrintzi txapelketa
Antolatzailea: Supelaur kultur elkartea ZUBIAUR PLAZAN

23:00 // Kontzertua:
SKAKEITAN
GORBEIA KALEAN

1:00 // DJ Markelin
ZUBIAUR PLAZAN

ZAPATU MOREA
TXOSNAGUNEAN

20:30 // Akelarrea

21:30 // Ekitaldi feministe

00:30 // Kontzertuak:
ANITA PARKER
DJ TARANTISTAK

JATETXE IZA
Afari eta bokata egin berriak jaietako egun guztietan, 20:30etik 00:00ak arte
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Gorbeia kalea 7 (Orozko) / 946 610 003

BEM CAFÉ • BAR
JAIAK GUREKIN OSPATU!

ARTIÑANO ETXEA
www.artinanoetxea.com

Leku berezi bat taldeentzat
Beraza 4, Orozko (Bizkaia)
info@artinanoetxea.com - 675702320/622048798

09.02 IGANDEA
SAN ANTOLIN EGUNA

12:00 // Kalejira San Roke musika bandarekin

11:00 // Garrafa lehiaketa
ZUBIAUR PLAZAN

11:00 // Elkartasun graffitiak eta pintxoak
TXOSNAGUNEAN

11:00 // Meza
SAN ANTOLIN ERMITAN

11:30 // Pelota partiduak
Antolatzailea: Olgetan Euskal Pelota Kirol Elkartea
ZUBIAUR PLAZAN

12:00 // Zekorrak zezen plazara ateratzea

12:30 // Elkartasun trikipoteoa
TXOSNAGUNEAN

13:00 // Garrafa lehiaketako sari banaketa eta doako garrafa eta limonada dastaketa
Antolatzailea: Garrafa elkartea

13:30 // San Roke bandaren kontzertua
ZUBIAUR PLAZAN

13:30 // Elkartasun argazkia
TXOSNAGUNEAN

18:30 // Zekorketa

20:00 // Manifestazioa eta ekitaldia
TXOSNAGUNEAN

20:30 Erromeria:
AKERBELTZ
ZUBIAUR PLAZAN

21:30 // Elkartasun afaria eta ostean kontzertuak:
ORBANAK
DJ DANTZETAN JARRAI
TXOSNAGUNEAN

09.03 ASTELEHENA
UMEEN EGUNA

10:00 // Pintura lehiaketa
ZUBIAUR PLAZAN

11:00 // Haur parkeak
ZUBIAUR ETA LEHENDAKARI AGIRRE PLAZETAN

12:00 // Ur-jolasak
Antolatzailea: Aisia
IGERILEKUAN

14:00 // Umeen bazkaria
ESKOLAN

15:00 // Haur parkeak

16:00 // Ur-jolasak
IGERILEKUAN

17:00 // Umeentzako karaokea eta irrintzi lehiaketa
Antolatzailea: Agate Deuna abesbatza
ZUBIAUR PLAZAN

19:00 // Mozorro lehiaketa
ZUBIAUR PLAZAN

20:30 // Haurrentzako ikuskizuna:
"EGUNON SIKIERA"
Zirika Circusen antzezlana
ZUBIAUR PLAZAN

09.04 ASTEARTEA
BERAKATZ EGUNA

10:00 // Kalejira, Haize Doinu gaiteroekin

SANANTOLINAK

12:00 // Joko poteoa
Antolatzailea: Adie Elkartea

15:00 // Herri bazkaria
FRONTOIAN

17:00 // Kontzertua:
PURO RELAJO
ZUBIAUR PLAZAN

19:00 // Bigantxa ikuskizuna
ZEZEN PLAZAN

20:30 // Erromeria:
JOSELU ANAYAK
ZUBIAUR PLAZAN

20:30 // DJ Instan
Txosnagunean

23:00 // Txokolatea
Antolatzailea: Adie Elkartea
ZUBIAUR PLAZAN

24:00 // Jaien amaiera

IBARRAKO JAIAK

08.14 ASTEARTEA

20:00 // Meza eta trikipoteoa. Jarraian, doako txorizo dastatzea eta kontzertua:
JOSELU ANAYAK

08.15 ASTEAZKENA

Eguerdian meza eta trikipoteoa

18:00 // Mus txapelketa

20:00 // Mozorro txapelketa

21:00 // Saiheski jana. Ondoren, dantza lehiaketa eta kontzertua egongo dira, honako taldearekin:
HILEAN BARIKU BAT

08.16 OSTEGUNA

12:00 // Paella lehiaketa eta meza

13:30 // Trikipoteoa

15:00 // Herri bazkaria

18:30 // Apar festa

19:30 // Txokolatada

20:00 // Zozketa

BERAZAKO SANMIGELAK

09.28 OSTIRALA

17:30 // Umeentzako tailerrak eta pailazoen ikuskizuna
Jarraian, txokolatada

21:00 // Kontzertua:
TXERRI SWING HOT GIPSY JAZZ
Bitartean pintxo-potea egongo da

09.29 LARUNBATA

12:00 // Meza eta jarraian herri bazkaria
Bazkarian parte hartzeko aurretik eman beharko da izena Itxina edo Zubiaur tabernetan, irailaren 20a baino lehen

17:00 // Mus azkar txapelketa

19:00 // Kontzertua:
HILEAN BARIKU BAT

Nora Latatu Landaluze

Jarraian...
JOSELU ANAYAK
Barbakoa egongo da bitartean

GOIKIRIKO JAIAK

09.08 LARUNBATA

Eguerdian, meza eta luntxa

09.16 IGANDEA

12:00 // Meza, euskal dantzak eta tortilla eta paella lehiaketak

17:00 // Txokolate jana, erromeria eta irrintzi txapelketa

ARTZINIEGAKO JAIAK

ABUZTUAK 31 - IRAILAK 9

Abuztuaren 31an hasi eta irailaren 9an amaituko dira aurten Artziniegako Arteko Gure Ama jaiak. Artziniegako Udala arduratu da antolakuntzaz, ez delako jai batzorderik sortu. Plazaratu berri dute egitaraua. Baina, jakinarazi dutenez, behin-behineko programa baino ez da, ekintza ugari lotzeke daudelako oraindik. Jaien ostean beste ospakizun bat egongo da herrian: Antzinako Azoka. Tokiko erakundeak hartu du aurten ekimen hori ere antolatzearen ardura.

ERREZETA

ZURRAKAPOTEA

BUILAKA BATUKADA

Urtero prestatzen dute txupinazoko garrafa

Osagaiak:

- 80 litro ardo
- 7 litro anana zuku
- 7 litro melokotoi zuku
- 7 bote anana almibarretan
- 7 bote melokotoia almibarrean
- 14 limoi eta 14 laranja
- 27 kanela-zotz
- 14 kilo azukre
- 5 melokotoi likore botila
- 5 sagar likore botila
- 3 ron beltz botila
- 4 karpy botila
- 3 ginebra botila

Prestaketa:

1) Lehenik eta behin, ardoa egosi beharra dago. 80 litroak sutan jarri behar dira eta azukrea eta kanela-zotzak gehitu behar zaizkio saldari. Ardoa egosi bitartean, irabiatzea komeni da.

2) Ardoa sutik kendu ondoren, fruta (bai naturala eta baita almibarretan dagoena ere) zatitu eta edukiontzi batera bota behar da.

3) Fruta isuri ostean, edukiontzi berdinera ardoa ez diren gainerako edari guztiak gehitu behar dira.

4) Ardoa guztiz egosita dagoenean, sutik kendu eta fruta eta bestelako edariak dauden edukiotzira pasa.

*5)*Zurrakapotea guztiz eginda dagoela iruditu arren, edukiontzian dauden frutak eta edariak beratu egin behar dira. Beratze denbora, gutxi gorabehera, aste batekoa da.

6) Aste bat pasata, zurrakapotea iragazi behar da. Horrela frutak eta kanela-zotzak edaritik kenduko ditugu.

7) Hori eginda dagoenean, tenperatura baxuetan hoztu behar da eta, ondoren, edateko prest egongo da!

Oharra: Osagai kopuruak 100 litro egiteko pentsatuak daude.

EGITARAUA

08.31 OSTIRALA

20:00 // Eraso sexisten aurkako gunea

20:30 // Zurrakapote
GOIKO PLAZAN

21:00 // Pregoia eta txupinazoa
GOIKO PLAZAN

21:30 // Kalejira erraldoi eta buruhandiekin

22:00 // Tokiko jokalarien pilota partiduak

23:30 // Don't panic

00:30 // Kaltzontzillo eta kulero lasterketa

01:00 // Musika emanaldia:
KRESALA

09.01 LARUNBATA

12:00 // Pintxo lehiaketa
GOIKO PLAZAN

14:30 // Babarrun jana herrikoia

16:30 // Kantukada

18:00 // Igel txapelketa

19:30 // Munduko XXVI. Bonbona Lasterketa eta XII. Garrafoi lasterketa

22:00 // VIII. Playback Txapelketa

00:30 // Kontzertua:
DR. MAHA'S MIRACLE TONIC

02:00 // Musika-emanaldia:
DJ RUBA

09.02 IGANDEA

11:00 // Meza
ARTEKO SANTUTEGIAN

11:45 // Arteko Gure Amaren omenezko XXXXI. Enkantea

13:30 // Tabernaz taberna lasterketa, umeentzat
BARRENKALEN

18:00 // XI. Kronoeskalada iturritik iturrira

21:00 // Berakatz zopa
ARTEKALEN

MATEO LAFRAGUA

36 urte oinezko lehen jaitsieratik

Ezin gara Arteko zelaiko lehen jaitsieraz mintzatu aurretik beste gertaera batzuk aipatu gabe. Aldaketa asko egon ziren jaietan urte horietan, gaur egungo festen bilakaera markatu dutenak.

1974. urtean aldaketa garrantzitsu bat egin zen jaien kontzeptuan eta ordura arte erabilitako datetan. Aldaketa erradikala izan zela esango nuke, urte askotako tradizioarekin apurtu baitzuen. Kexa eta protesta batzuk egon ziren arren, moldaketa horiek indarrean diraute gaur egun, bere garaian bete-betean asmatu zenaren seinale. 1974ko urtean irailaren 9ko Arteko zelaiko bazkari tradizionala irailaren 8tik (Artziniegako patroiaren eguna) gertuen zegoen larunbatera aldatu zen. Ordura arte bazkaria Arteko festaren osteko egunean ospatzen zen, tradizioak hala aginduta.

Moldaketa horrekin ekin zitzaion handik urte batzuetara zelaitik jaitsiera oinez egiteari, eta harrera masiboa izan zuen, larunbatean egiten zelako.

1982. urtean antolatu zen gaur egungoaren tankerako lehen jaitsiera. Zenbait urtetan jaitsiera autoz egin zen, modu librean. Herria zeharkatzen zen klaxonarekin ahalik eta zarata handiena eginez. Baina urte horretan jai batzordeak erabaki zuen jaitsiera oinez egingo zela eta fanfarrea batek lagundua izango zela. Hala adierazi zen urte hartako jai egitarauan, autoak atzetik joan beharko zirela nabarmenduta.

Oroitzen dut tentsio uneak egon zirela autoz jaitsi nahi zutenen eta Jai Batzordeko kideen artean. Gauzak hala, zutoin bat jarri zen bidearen erdian, oinezkoak jaisteari ekin zioten arte. Beste aldaketa garrantzitsu bat, autoak zelaian sartzea debekatzea. Harriz inguratu zuen belardia gazte talde batek, agindu hori bete zedin. Modu horretan ekidin zen autoak sartzea eta mahaien parean aparkatzea. Urte batzuk beranduago egin zen gaur egun ezagutzen dugun itxiera harresia.

Jaitsieraren antolakuntzak beste tradizio bat ekarri zuen berarekin, gaur egun oraindik mantentzen dena: jaitsieran parte hartzen duten pertsonei ura botatzea leiho eta balkoietatik. "Ura, ura" zioen oihuak mezu bikoitza zeukan: jaiari lotutakoa eta aldarrikapenezkoa. Garai hartan ur eskasia garrantzitsua bizi zuen Artziniegak udan, egunean ur hornidura ordubetekoa soilik izateraino (eta Alde Zaharrean are gutxiago).

1974. urtean bazkaria dataz aldatu zuen Jai Batzorde berbera izan zen 1982. urtean oinezko lehen jaitsiera antolatu zuena. Urte luzez egon zen talde funtzionamenduan jende berria batuta.

EGITARAUA

09.03 ASTELEHENA
GAZTE EGUNA

11:00 // Ginkana kulturala

14:30 // Bazkaria

16:30 // Joko zoroak

19:30 // Karaokea

09.04 ASTEARTEA
UMEEN EGUNA

11:30 // Txokolatada

11:30 // Umeentzako parkea eta eskulan tailerra

14:30 // Bazkaria eta jokoak

16:00 // Umeentzako multiabentura parkea

18:30 // Apar festa

19:30 // 3x3 txapelketa eta haurrentzako playback txapelketa

09.05 ASTEAZKENA

Multiabentura, frontenis txapelketa eta artzikirola egongo dira, besteak beste

09.06 OSTEGUNA
NAGUSIEN EGUNA

13:00 // Meza
PARROKIAN

14:30 // Bazkaria eta bingoa
FRONTOIAN

19:00 // Musika emanaldia

19:30 // Tokiko mus txapelketa

09.07 OSTIRALA

18:00-21:00 // Frontenis eta artzikirol finalak

21:00 // Kuadrillen afaria

MIREN LOPEZ TORRES
PRAKANASAIAK KOADRILA

Sexu makina baino gehiago da

Emakumeak eta gazteak garen aldetik, gure koadrilan beti egon da mugimendu feministarekiko zein LGBTIQ+ mugimenduarekiko sentsibilitate handia. Gauzak hala, iazko jaietako playback-a egiterako orduan zerbait aldarrikatzearen ideia bururatu zitzaigun, guretzat esanguratsua zen zerbait.

Urte bat baino gehiago generamatzan lehiaketa horretan Lady Marmalade kanta abestu eta kanta hori baliatuta dantza bat egitea planteatzen, modu horretan arreta deitzeko gure gizartean existitzen diren -eta, zoritxarrez, ontzat ematen diren- zantzu matxistekiko. Kasu zehatz horretan janzteko moduan jarri nahi genuen begi-puntuaren xedea. Janzteko moduek sententzia zentzugabeak justifikatu dituzte abusu eta bortxaketa kasuetan; gure gizartearen zati handi batek, zoritxarrez, txalotzen dituen bitartean. Argi genuen zein izango zen ekintzaren oinarri musikala: "Voulez vous coucher avec moi ce soir". Eta argi genuen letrak planteatzen duen gonbidapena bezain erakargarria izan behar zela dantza. Gauzak hala, kabaret bat egitea bururatu zitzaigun.

Ideia argi izan arren, ez ginen egitera animatu, beti jakin izan dugulako Artziniega herri txikia dela, zeinetan jende guztia elkar ezagutzen den. Kritiken beldur ginen, baina duela zenbait urte mutilak galtzontzilotan hankartea nabarmentzen zitzaiela igo ziren, eta inork ez zien ezer esan. Hori guztia buruan genuela eta emakumeak kalean geroz eta gehiago mobilizatzen zirela ikusita, "La manadaren" afera egunkarian zegoenez, pentsatu genuen bazela unea pauso bat aurrera eman eta horrenbeste aldiz pentsatu genuen ekintza egiteko.

Oholtzara igo ginen, ekintza egin genuen eta ondo pasatu genuen, horretarako geundelako jaietan, eta irabazi egin genuen gainera. Baina dibertsioak eta irabazi izanak ez gintuzten gure janzkera eta dantzatzeko moduarekiko kritiketatik salbuetsi. Hori bai, ez zen kritika bat bera ere ez egon galtzontzilotan hankartea markatzen berriz atera ziren mutilentzat.

Argi dago gure mezua ez zela pertsona guztietara iritsi. Alabaina, horrez gain, argi geratu zen kritikatu gintuztenek ez zutela ikuskizuna amaitzerakoan atera genuen pankartako esaldia irakurri, Los Chikos del Maiz taldearena: "No me visto así para provocar, me visto así porque me da la gana y ya está".

Bide luzea geratzen zaigu oraindik egiteko, eta buru asko hezteke. Baina lan egiten jarraituko dugu gure gauza txikiekin, hau dena aldatu dadin.

EGITARAUA

23:00 // Artziniegako Rock Elkartearen maketa lehiaketako irabazlearen kontzertua

01:00 // Kontzertua

02:30 // Musika emanaldiak:
AIARALDEKO SOINU SISTEMA + DJ

00:00-3:00 // Preben-jaia

09.08 LARUNBATA

12:00 // Meza eta lore eskaintza Arteko Gure Amari

14:00 // Bazkaria
ARTEKO ZELAIAN

17:30 // Adin guztientzako jokoak

19:00 // Arteko Gure Amari salbea
SANTUTEGIAN

19:30 // Herrira jaitsiera El Despiste fanfarrearekin

21:00 // Pilota partiduak

23:00 // Musika-emanaldia

00:30 // Kontzertuak:
AKERBELTZ

09.09 IGANDEA

9:00 // Tortilla eta marmitako txapelketa
GOIKO PLAZA

11:00 // Kadeteen txirrindulari lasterketa
XXVII. Arteko Gure Ama Saria

17:00 // Herri kirol erakustaldia

17:30 // Kuadrillen arteko herri kirolak

20:00 // Erromeria Mikelekin

20:00 // Odoloste dastatzea
GOIKO PLAZA

21:00 // Kuadrillen arteko herri kirolen sari banaketa

21:30 // Jaiei amaiera emateko traka

GUREKIN ERE EUSKARAZ!

NEURRIRA EGINDAKO JAIETARAKO PRODUKTUAK

KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU ///

SERIGRAFIA, BORDATUA, BINILOA, INPRESIO DIGITALA

Grafik

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

INOIZ EZ ZARA **ERABAKITZEKO HORREN ASKE IZAN**

HIPOTEKA EROSOA

Erabakitzeko aske zara. Zer bizimodu nahi duzun eta nola bizi nahi duzun erabakitzeko aske. Horregatik, **LABORAL Kutxaren Hipoteka Erosoarekin**:

- **Zuk zeuk erabakitzen duzu zer egunetan ordaindu**
- **Zuk zeuk aldatzen duzu kuota**
- **Zuk Kuota Lasaigarria duzu**: 24 hilabetean interesak bakarrik ordaintzen, kapitalik amortizatu gabe.

Hasierako kapital-gabealdiarekin: lehen 12 hilabeteetan interesak bakarrik ordaintzeko aukera; hau da, urtebetean ez da kapitalik ordainduko. Eta tarteko kapital-gabealdiak: beste bi gabealdi ere eska ditzakezu, horietako bakoitza 6 hilabetekoa, betiere batetik bestera gutxienez urtebeteko tartea baldin badago. Kuota txikitzeko aukera, aldez aurretik ordaindu bada eta hasierako epea gainditzeko aukerarik gabe. Kuotak hileko zein egunetan ordainduko dituzun aukeratu ahal izatea.

LABORAL kutxa

Bada beste modu bat